

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko uztailaren 24a

54 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Euskarazko irratiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- EITB ikusi eta entzun ahal izateko gestioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (4. or.).
- Jaime Iribarren Iriarte jaunak Foru Parlamentari izateari uztea (32. or.).
- Xabier Vélez Medrano jaunak Foru Parlamentari kargua hartzea (32. or.).
- Xabier Vélez Medrano jauna «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldean sartzea (33. or.).
- «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen kideak (33. or.).
- “Elkarbizitza Baketsuaren aldeko Akordioa”ren berrespena (33. or.).
- Aldarrikapena, “Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeari dei egiteko ETAk Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets dezan (34. or.).

F Saila:
GALDERAK

Euskarazko irratiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Euskarazko irratiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak euskarazko irratiei buruz egindako galderaren ondoko erantzuna igortzen dizu:

1.a.- Gure Komunitateko irradi kateak esleitzeko espedientearen egungo egoera.

Estatuko Administrazioak frekuentzia modulazioa (FM) duten Onda Metrikoetako Soinuko Irratidifusioari buruzko Nazio mailako Plan Teknikoa onetsi behar du. Hartan eskura dauden frekuen-

tziak zehaztuko dira. Foru Administrazioak une horretan izanen du aukera esleipen horiek emateko deialdi publikoa deitzeko.

2.a.- UPNko oraingo Gobernuak zer asmo duen esleipenerako

Nafarroako Gobernuak deialdia egiteko asmoa du behin Plan Teknikoa onetsi ondoren.

3.a.- Oraingo Gobernuak eusten al dio emakidetako bat, gutxienez, euskarazko irradi baten aldekoa behar duelakoari? Zeinen alde?

Lehenbiziko galderan aipatzen den Plan Teknikoa onesten denean, Nafarroako Gobernuak, kanalen kopurua eta kanal horiek eskura dauden Nafarroako eskualdeak zein diren ikusi ondoren, erabakirik egokiena hartuko du eskualde bakoitzaren baldintza kulturaletarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokotan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 7an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

EITB ikusi eta entzun ahal izateko gestioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak EITB ikusi eta entzun ahal izateko gestioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin

agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak EITB hartzeari buruz egindako galderaren ondoko erantzuna igortzen dizu:

1.a.- EITB hartzeko eman diren urratsak: EIT-Brekiko harremanak.

1996ko abenduaren 16an izenpetzen duen kontseilariak elkarrizketa bat izan zuen Madrilen Sustapen ministroarekin, eta, beste kontu batzuen artean, EITB Nafarroan hartzearen erregularizazioaz galdegin zion. Bileran TV autonomikoen seinalearen difusioa beren lurraldeen esparruetara mugatzen duen telebistako hirugarren kanalari buruzko legearen gaia aipatu zen. Horren arabera EITB hartzea lege horren aurkakoa izanen litzateke.

2.a.- 1997an hasitako ekintzak, teknikaren aldetik.

Legezko babesik ez dagoenez, ez da aurten goz inongo jarduera teknikorik egin.

3.a.- Kontusailaren egoera, gastu-konpromezuaren aldetik.

EITB hartzearen erregularizaziorako aurrekontu-lerroan, gaur egun, 4.800.000 pta daude. Haien gastatzeko inongo konpromisorik ez dago.

4.a.- Kontusailaren betetzea, 1997ko apirilaren 14an.

Gaurko egunez, ez da inongo gasturik egin lerro horren kargura.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 7an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 28an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko apirilaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Corellako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (4. or.).
 - II. Helburua (4. or.).
 - III. Norainokoa eta mugak (5. or.).
 - IV. Iritzia (5. or.).
 - V. Finantza-egoerak (7. or.).
 - VI. Ondorioak eta gomendioak (12. or.).
- 1. eranskina:** Corellako Udaleko Alkate-Udalburuak aurkeztutako alegazioak (31. or.).

I. SARRERA.

Corella Tuterako Merintateko hiri bat da, 1995eko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera 6.470 zuzenbideko biztanle dituena.

Corellako Udalak San José Zaharretxea Organismo Autonomoan parte hartzen du eta ur-hornikuntza bere gain duen Moncayoko Ur Mankomunitateko eta hondakin bilketa eta tratamendua kudeatzen dituen Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateko kidea da. Halaber, Nafarroako Erriberaren garapen integrala xedetzat duen Nafarroako Erriberako Garapen Estrategietarako Partzuergoan parte hartzen du.

1995. urtean Udalaren aurrekontua 778 milioi pezetakoa zen eta Organismo Autonomoarena 42 milioi pezetakoa, azken hau Udalarenaren barrenean ez zegoelarik.

Udalak 43 langile ditu eta Organismo Autonomoak 10.

Kontuen Ganbarak Corellako Udalaren 1990eko kontuen fiskalizazioa egin zuen, 1991ko irailaren 13ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 8. zenbakian argitaratu zena.

II. HELBURUA.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorritik, Kontuen Ganbarak bere jarduketa-programaren barruan sartu du Corellako Udalaren eta San José Zaharretxea Organismo Autonomoaren kudeaketa ekonomiko-finantzieroaren, 1995eko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren Aurrekontuen betetzearen eta 1995eko abenduaren 31n zuen finantza-ondare-egoeraren fiskalizazioa.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legediaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko Araua, Toki Ogasunak eraberrizteari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeeri eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeak, 1995 urtean onartu den arren, ez du ekitaldi honen gaineko eragin egiazkorik, parterik handienak 1996ko urtarrilean hartu baitzuen indarra.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruz gure iritzia ematea da:

a) Udalaren eta honen menpeko organismoaren 1995eko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1995eko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera azalaraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate-hatsapenen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantziarioa legezotasuna-hatsapenaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Entitatearen egoera finantzieroa 1995eko abenduaren 31n.

e) Kontuen Ganbarak 1990 urteari dagokion fiskalizazio txostenean egindako gomendioak bete diren ala ez.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak gainbegiratzeari eta Udalaren ondare-egoera eta egoera finantzieroa aztertzeari lotu zaie lana. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako alderdiak jorratu dira, gorabeheren arabera beharrezkotzat jo ditugun frogak egin direlarik.

Bere kontuak Udalarenetan sartuta ez dituen San José Zaharretxea organismo autonomoak sektore pribatuari dagozkion kontabilitate-arauen arabera egindako finantza egoerak baino ez ditu aurkezten 1995ean.

Gure lanak izan dituen mugak honako faktore hauek eragin dituzte:

- Operazioen mozketak txarrak.
- Kudeaketarako eta barne kontrolerakosistema eskasak.
- Ezarri den lehenengo urtea denez, ondare-kontabilitateak.
- Ondasunen inbentarioa eguneratu ez izanak.

Txostenean Udalaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak sartzen dira.

Zelaiko lana 1996ko azaroan eta abenduan egin zen.

Corellako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

IV. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren esparruan Corellako Udalaren gastu eta dirusarreraren aurrekontua-

ren betetzearen egoera aztertu dugu, 1995eko ekitaldiari dagokiona, eta baita 1995eko abenduaren 31n zegoen egoeraren Balantzea eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiko ekonomi-ondare emaitzen Kontua.

Gorabeheren arabera, egokitzat eta beharrezkotzat jotako auditoria arau eta prozedurak erabaili ditugu azterketa honetan.

Gure azterketatik, honako Iritzi hau ondorioztatzen da.

IV.I. UDALA.

IV.I.I. Aurrekontuaren kitapenari dagokionean.

Gure ustez, 1995eko ekitaldiko Aurrekontuaren Kitapenak Corellako Udalaren 1995ko ekitaldiko aurrekontuen emaitzaren eta kobratzeko dauden eskubideen eta ordaintzeko dauden obligazioen nahiz diruzaintzako gerakinaren irudi fidela eskaintzen du 1995eko abenduaren 31n eta indarrean dagoen legediarekin bat etorritik prestatu da, honako salbuespenekin:

Gastuaren betetzeak ez du alde aurretik esku-sartze egokirik izan, gastuen betetze errearen ondoren aurrekontuen aldaketak onartu direlarik, aurrekontua betetzeko oinarriak eta aurrekontuei buruzko gainerako kontabilitate-arauak bete gabe.

1995eko aurrekontuaren betetzean sartutako aurrekontuen aldaketak, 1996ko ekainaren 27ko Osoko Bilkurak onartuta, dirusarreretan 81 milioi pezetakoak dira eta gastuetan 111 milioi pezetakoak, aurrekontuaren behin betiko aurreikuspenetan bezala, 30 milioi pezetako defizita aurkeztuz. Honen aurretik, Udalaren Osoko Bilkurak dirusarreretan 79 milioi pezetako eta gastuetan 89 milioi pezetako aldaketak bakarrik onartu zituen aurrekontuetan.

Ukitutako finantzaketa duten gastuetarako ez da berriazko kontabilitate jarraipenik ezarri.

Eragiketen mozketan akatsak daude, aurreko ekitaldiari dagozkion gastuak erregistratu direlarik eta ekitaldi honetan bertan egindako zenbait gastu isladatu ez direlarik. Azken honi dagokionez, 1995eko aurrekontuaren kitapenean ez dira gastu bezala azaltzen 39,1 milioi pezetako inbertsioak, 7,7 milioi pezetako kapital-transferentziak, eta maileguen interesei, langileen gizarte aseguruiei eta zerbitzu nahiz ondasun arruntak erosteari dagozkien 6,2 milioi pezeta.

Inbertsio errearen besterenganatzeagatik izandako dirusarreretan (6. kapitulua) higiezin baten salmentari ezarritako BEZari dagozkion 6,4 milioi pezeta sartu dira.

IV.I.2 Finantza-ondare egoeraren eta emaitza ekonomikoen azalpena.

1995ean Kontabilitate Publikorako Planarekin programa informatikoa ezarri du Udalak eta 1995eko abenduaren 31n zuen Egoeraren Balantzea eta aipatutako datan bukatutako urteko ekitaldiari dagokien ekonomi eta ondare Emaitzen Kontua aurkeztu ditu. Gure azterketaren irismenak dituen mugak kontutan hartuta, Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratu gabe dagoenez, ez baitago higiezinaren kontabilitate-baloreetarako erregistro euskarri egokirik, ezin dugu Udalaren aipatu finantza-egoerei buruz iritzirik eman.

Honez gain, 1995 ondare kontabilitatea ezarri den lehenengo urtea izanik, ez dira modu egokian zehaztu finantza egoerak, ekonomikoak eta ondarearenak egiteko jarraitu behar diren kontabilitate-politikak; txostenean zehar aipatzen diren salbuespenak daude, jasotako kapital subentzioen erregistroarekin, eragiketen mozketan izandako akatsekin, zor-saldoen berreskuragarritasunarekin eta kreditu entitateekin, hartzekodunekin eta entitate publikoekin dituzten zorren aurkezpenarekin eta sailkapenarekin zerikusia dutenak.

IV.I.3. Legezketasuna.

Corellako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzieroa legezketasun hatsapenaren arabera gartzten da orokorrean. Hala ere, txostenean zehar aipatzen diren zenbait arau-hauste aurkitu ditugu, batez ere gastuen aurrekontuaren betetzearekin, lanen eta hornigaien kontratazioekin, inbertsio errealen besterenganatzeekin eta langilegoarekin zerikusia dutenak.

IV.I.4. Finantza-egoera.

1995eko abenduaren 31n finantza-egoera zaila du Corellako Udalak, azken urteetan izandako aurrekontu defizitek eraginda. Defizit hauek egindako inbertsioetatik eratortzen dira, diruzaintza gerakin negatiboa eta zorpetze handia (finantziario iraunkorra) dituelarik. 1995eko ekitaldian aurrezki garbia negatiboa izan da, dirusarrera arruntak funtzionamendu gastuak eta bankuekiko zorren interesak estaltzeko aski ez direlarik. Zorpetze maila mugatik askoz haruntzago doa.

IV.I.5. Aurreko txostenaren gomendioen jarraipena.

Orokorrean Kontuen Ganbarak 1990eko ekitaldiaren gainean egindako aurreko fiskalizazio txostenean adierazitako gomendioak jarraitu dira. Honen ondorioz, kontabilitate kudeaketaren informatizazio maila garrantzitsua lortu da, Udalaren ondasunen inbentarioa dago, ondare kontabilitatea ezarri da eta aldizkako dirusarrera gehienak

bankuaren bidez kobratzen dira. Langilegoaren kudeaketari dagokionez, soldatak modu egokian zehaztuta daude, dagozkien nominetan sartzen dira eta legezko atxikipek egiten dira, ordainketak bankuen bidez egiten direlarik.

Oraindik ez dira beren osotasunean gauzatu oinarritzko administrazio-kontabilitate prozeduren zehaztapenarekin zerikusia duten gomendioak eta aurrekontua betetzeko oinarriak ez betetzearekin nahiz lanak eta zerbitzuak kontratatzeke enkante eta lehiaketa prozeduren ezarpen handiago batekin loturik daudenak.

IV.I.6. Ondorioa.

Auditoriaren iritzia osatuz eta ondorio nagusi gisa, garrantzi handikoa iruditzen zaigu Corellako Udalak Kontuen Ganbara honek aurreko txostenean kudeaketa eta kontabilitate prozeduren modernizazioa eta beharretara egokitzea lortzeko egindako gomendioak ezartzeko egindako ahalegina azpimarratu behar dela uste dugu; hala ere, guztiak eguneratu eta bete arte segitu behar dute. Beste gauza batzuen artean, bere administrazio plantilaren berritze sakona ekarri du ahalegin honek.

Era berean, azpimarratu nahi dugu 1995ean alde batetik garrantzi handiko inbertsioak egin zirela eta beste alde batetik kontabilitate prozeduren aldaketa egin zela, jarduketan eragina duten eta askoz ere lan handiagoa dakartzaten alderdiak, alegia.

Beste alde batetik, Kontuen Ganbara honen eritziz, Udala aurrekontuetan oreka lortzeko plan zehatza egitera behartuko duen ekonomi egoera kezkarria nabarmendu behar da.

IV.2. ORGANISMO AUTONOMOA.

Udalak, 1995eko maiatzaren 18ko Osoko Bilkuran, Organismo Autonomorako 42 milioi pezeta-ko aurrekontua onartu zuen arren, ezta aurrekontuaren kitapenaren egoera egin, eta beraz, kontabilitate publikoaren alorrean indarrean dagoen araudia ez da bete.

Organismo Autonomoak sektore pribatuaren hatsapen eta kontabilitate arauen arabera prestatuturiko egoera-balantzea 1995eko abenduaren 31n eta data horretan bukatutako urteko ekitaldiko emaitza-kontua aurkeztu ditu kontabilitate-egoera gisa. Kontabilitate-egoera hauek zentzuz islatzen dute Organismo Autonomoaren finantza-ondare egoera 1995eko abenduaren 31n eta 1995 urteari dagokion ekitaldiko eragiketen emaitza, honako salbuespen hauekin:

Ibilgetu materialak ez du jasotzen 1994ko abenduaren 31 baino lehen Udaletik esleipenean hartutako ondarea, 176 milioi pezetako ondasun higieziei (balio katastralaren arabera) eta hornikuntzari dagokiena.

1995ean ez dira islatu B.E.Za dela-eta saldoen erregularizazioarekin eta ekitaldia ixtean finantza inbertsioek sortutako interesekin zerikusia duten 2 milioi pezetako dirusarrerak.

V. FINANTZA-EGOERAK.

Corellako Udalak aurkeztu dituen finantza-ego-

erak, 1995eko ekitaldiari dagozkionak, ondoko hauek dira:

1995eko ekitaldiko aurrekontuen kitapenari dagokion dirusarrera eta gastuen egoera .

- 1995eko abenduaren 31n Diruzaintza gerakinararen egoera.
- Gastuen betetze funtzional-ekonomikoa.
- Egoera-balantzea 1995eko abenduaren 31n.
- 1995eko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiko ekonomi-ondare emaitza-kontua.

CORELLAKO UDALA 1995

GASTUAK

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Onartutako betebeharrak	Agindutako ordainketak	Kiutatako ordainketak	Ordaintzeke	Betetze-aren %	Aitorrut. guzt. g/%
1. Langileen soldatak	185.370.992	754.794	186.125.786	186.125.786	186.125.786	184.070.690	2.055.096	100	27
2. Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea	128.605.223	31.355.240	159.960.463	159.463.862	159.266.572	116.166.205	43.100.367	100	23
3. Finantza-gastuak	31.959.318	3.704.400	35.663.718	35.663.718	35.663.718	34.058.033	1.605.685	100	5
4. Ohiko transferentziak	9.265.000	8.858.064	18.123.064	15.278.155	15.278.155	14.216.476	1.061.679	84	2
6. Inbertsio errealak	328.657.772	39.887.081	368.544.853	196.144.426	191.174.176	141.716.186	49.457.990	53	28
7. Kapital transferentziak	19.536.892	26.750.000	46.286.892	29.386.951	29.386.951	22.636.951	6.750.000	63	4
9. Finantza-pasiboak	74.904.474	0	74.904.474	74.904.472	74.904.472	43.105.697	31.798.775	100	11
95eko gastuak guztira	778.299.671	111.309.579	889.609.250	696.967.370	691.799.830	555.970.238	135.829.592	78	100

DIRUSARRERAK

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Onartutako eskubideak	Kiutatako dirubilketak	Kobratzeke	Betetze-aren %	Aitorrut. guzt. g/%
1. Zuzeneko zergak	101.219.462	(2.891.055)	98.328.407	98.261.986	90.960.175	7.301.811	100	14
2. Zeharkako zergak	19.000.000	448.392	19.448.392	20306.113	18.245.085	2.061.028	104	3
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	59.974.138	6.021.355	65.995.493	67.668.116	64.187.963	3.480.153	103	10
4. Ohiko transferentziak	189.708.183	5.394.966	195.103.149	192.902.221	186.929.116	5.973.105	99	28
5. Ondare eta herrilurren dirusarrerak	11.999.998	(442.800)	11.557.198	10.587.454	7.560.311	3.027.143	92	2
6. Inbertsio errealak besterenganatze	53.000.000	10.328.406	63.328.406	64.490.560	51.857.638	12.632.922	102	10
7. Kapital transferentziak	155.534.292	46.205.082	201.739.374	129.863.912	114.675.844	15.188.068	64	19
9. Finantza-pasiboak	187.863.598	16.071.594	203.935.192	94.320.055	94.320.055	0	46	14
95eko dirusarrerak guztira	778.299.671	81.135.940	859.435.611	678.400.417	628.736.187	49.664.230	79	100

Corellako Udala

Diruzaintza gerakinaren egoera 1995eko abenduaren 31n

Kobratzeke dauden zordunak	Pezetak
Dirusarrerren aurrekontukoak. Ohiko aurrekontua	49.664.230
Dirusarrerren aurrekontukoak Aurrekontu itxiak	27.247.721
Aurrekontukoak ez diren beste eragiketa batzuetakoak	363.528
Zalantzan dauden kobraketen saldoak kenduz	(22.319.569)
Guztira	54.955.910
Ordaintzeke dauden hartzekodunak	Pezetak
Gastuen aurrekontukoak. Ohiko aurrekontua	(135.829.592)
Gastuen aurrekontukoak. Aurrekontu itxiak	(21.530.399)
Dirusarrerren aurrekontukoak	(153.704)
Aurrekontukoak ez diren beste eragiketa batzuetakoak	(5.959.824)
Guztira	(163.473.519)
Diruzaintzako fondo likidoak	36.756.747
Diruzaintza gaineratikoa	(71.760.862)

Corellako Udala

Gastuen betetze funtzional-ekonomikoa

	Betetakoa guztira	Langileen soldatak	Ohiko ondasunak eta zerbitzuak	Finantza- gastuak	Ohiko transferentziak	Inbertsio errealak	Kapital transferentziak	Fiantza- pasiboak
Zor publikoa	110.568.190			35.663.718				74.904.472
Gobernu-organoak	6.039.158	4.472.182	870.048			696.928		
Administrazio Nagusia	34.814.902	14.189.531	17.928.127		217.475	2.479.769		
Administrazio Nagusiko Zerbitzuetako gastuak	1.819.215		861.350			957.865		
Segurtasuna	34.318.809	31.883.049	1.425.011			1.010.749		
Gizarte jarduerak	9.763.807	6.882.628	2.881.179					
Pentsioak eta bestelako laguntzak	85.266.106	85.131.958	134.148					
Sustapena eta enplegua	1.979.530	1.979.530						
Ospitaleak, Laguntza Zerbitzua eta Osasun Etxeak	1.298.273	481.456				816.817		
Osasun alorreko jarduerak publikoak	304.950		304.950					
Irakaskuntza	13.505.637		12.463.637		1.042.000			
Etxebizitza	661.825		661.825					
Hirigintza eta arkitektura	211.993.756	32.688.699	28.014.209		148.653.897	2.636.951		
Zaborrak, tratamendua eta garbiketa	20.204.556		19.252.018			952.538		
Kanposantuak eta hileta-zerbitzuak	6.257.766	177.344	366.422			5.714.000		
Azokak	684.143	499.257	184.886					
Konsumitzailearen informazio-bulegoa	275.000				275.000			
Arloko Zuzendaritza eta Administrazio Nagusia	7.378.278	3.549.911	3.828.367					
Kulturaren sustapena eta hedapena	38.403.940		7.958.698		3.695.242		26.750.000	
Polikiroldegia	9.939.132		9.939.132					
Kirol instalazioak	8.884.259	2.029.017	6.855.242					
Kirol jarduerak	13.052.499	2.161.224	9.597.575		1.293.700			
Aisiarako beste talde batzuk	400.524				400.524			
Ondare historiko-artistikoaren babesa	1.593.669				244.465	1.349.204		
Jaiak	29.638.938		27.578.138		1.560.800	500.000		
Gizarte komunikazioa eta hiritarren parte hartzea	1.833.324				1.833.324			
Errepideak, auzo-bideak eta hiriko bide publikoak	8.029.570		8.029.570					
Nekazal sustapena	184.742		184.742					
Industria	35.486.662				4.715.625	30.771.037		
Turismo	2.386.210		144.588			2.241.622		
Guztira	696.967.370	186.125.786	159.463.862	35.663.718	15.278.155	196.144.426	29.386.951	74.904.472

Corellako Udala
Egoera balantzea 1995eko abenduaren 31n

AKTIBOA	Pezetak
Ibilgetu materiala	1.266.094.902
Ibilgetu inmateriala	1.348.896
Erabilera orokorreko ibilgetua	147.211.403
Ibilgetu finantzieroa	500.000
Gastu amortizagarriak	66.000
Ibilgetua guztira	1.415.221.201
Zordunak	77.275.479
Diruzaintza	36.756.747
Zirkulatuzailea guztira	114.032.226
AKTIBOA, GUZTIRA	1.529.253.427
PASIBOA	Pezetak
Ondarea eta erreserbak	905.583.558
Ekitaldiko galerak	(36.494.765)
Ondarea guztira	869.088.793
Kapital dirulaguntzak	129.863.912
Epe luzeko zorrak	366.827.203
Hartzekodunei agindutako ordainketak	152.192.451
Entitate publikoak	3.919.055
Beste hartzekodunak	7.362.013
Hartzekodunak guztira	163.473.519
PASIBOA, GUZTIRA	1.529.253.427

Corellako Udala
1995eko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiko
ekonomi-ondare emaitzen kontua

GASTUAK	Pezetak
Langileak	185.723.186
Gastu finantzieroak	35.663.718
Zergak	134.148
Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	157.859.759
Gizarte laguntzak	1.872.555
Ohiko transferentziak	15.278.155
Kapital transferentziak	29.386.951
Bestelako gastuak	148.479
1995eko gastuak guztira	426.066.951
DIRUSARRERAK	Pezetak
Salmentak	43.328.442
Jabetzaren errentak	19.787.292
Ekoiizpenari lotutako zergak	111.527.793
Zerga arruntak	20.306.113
Bestelako dirusarrerak	1.272.825
Ohiko transferentziak	193.349.721
95eko dirusarrerak guztira	389.572.186
GALERA GARBIA, GUZTIRA	36.494.765

Corellako Udalaren San José Zaharretxea organismo autonomoak aurkezten dituen finantza-egoerak, 1995eko ekitaldiari dagozkionak, honako hauek dira:

Egoeraren balantzea 1995eko abenduaren 31n

1995eko abenduaren 31n bukatzen den urteko ekitaldiaren emaitza kontua

Zaharretxea
Egoera balantzea 1995eko abenduaren 31n

AKTIBOA	Pezetak
Ibilgetu materiala	5.327.715
Izakinak	876.024
Zordunak	7.019.736
Aldi baterako finantza-inbertsioak	8.111.185
Diruzaintza	1.670.708
Zirkulatzaila guztira	17.677.653
AKTIBOA, GUZTIRA	23.005.368
PASIBOA	Pezetak
Ondarea eta erreserbak	21.104.638
Ekitaldiko galerak	(3.598.561)
Ondarea guztira	17.506.077
Hartzekodun komertzialak	1.878.769
Komertzialak ez diren bestelako zorrak	3.620.522
Hartzekodunak, guztira	5.499.291
PASIBOA, GUZTIRA	23.005.368

Zaharretxea
1995eko abenduaren 31n bukatzen den urteko ekitaldiaren emaitza kontua

	Pezetak
Ustiapen dirusarrerak:	
Zerbitzu prestazioak	40.230.729
Bestelako ustiapen dirusarrerak	265.216
Ustiapen dirusarrerak guztira	40.495.945
Ustiapen gastuak:	
Hornikuntza	6.080.945
Langileak	25.288.662
Amortizazioak	337.010
Trafiko probisioen aldaketa	67.500
Kanpo zerbitzuak	10.640.914
Ustiapen gastuak guztira	42.415.031
Ustiapen galera	(1.919.086)
Finantza emaitza positiboa	179.620
Ohiko jardueren galera	(1.739.466)
Ohiz kanpoko emaitza negatiboa	(1.859.095)
EKITALDIKO GALERA	(3.598.561)

VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Jarraian ondorioak eta Udalaren antolaketa eta barne kontrolerako sistema hobetzeko, horrela kudeaketan hobekuntza lortuz, egoki iruditzen zaizkigun gomendio orokorrak aurkezten ditugu.

VI.I. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

IV Atalean Iritziari buruz esandakoa kontutan hartuz, aurrekontua betetzetik eratorzen diren honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

1995ean indarrean egon den aurrekontuak 1995eko maiatzaren 18ko Osoko Bilkuran onetsi zen eta, erreklamaziorik ez zegoenez, jendaurrean jarri ondoren behin betiko onartutzat jo da. 1996ko ekainaren 27ko Osoko Bilkurak 1995eko aurrekontuaren betetzea onartu zuen Kontu orokorrekin batera.

Aldez aurretik gastuaren kontuhartzailtzarik ez egoteak aurrekontuaren aldaketak gastua bete ondoren onartzea eta aurrekontuaren kitapenak Udalaren Osoko Bilkurak onartutakoak baino aldaketa handiagoak izatea eragin du, gastuen aldaketak dirusarreraren baino handiagoak direnez defizita atera delarik.

Ekitaldia ixtean eragiketen mozketan izandako akatsek 1995ean ondoren kapituluz kapitulu zehazten diren 53 milioi pezetako gastuak ez kontabilizatzea eragin dute:

Kontzeptua	Kapitulua	milioi pzta.
Langileak	1	2
Ohiko ondasunak eta zerbituzak erostea	2	4
Inbertsio errealak	6	39
Kapital transferentziak	7	8
Gastuak guztira		53

Ibilgetu material baten salmenta bat gaizki kontabilizatzeak inbertsio errealeen besterengana-tzeagatik dirusarreraren kapituluak 6,4 milioi peze-tako gehitzea izatea eragin du.

Finantza Egoerei buruzko V atalean azalduta-ko aurrekontuaren betetzeari buruzko koadroetan ikus daitekeenez, 1995eko ekitaldia 19 milioi pezetako defizitarekin itxi da, hau da, onartutako 697 milioi pezetako betebeharren eta onartutako 678 milioi pezetako eskubideen arteko aldea.

1995ean %78koa izan da gastuen aurrekon-tuaren betetze maila, kapitulurik inportanteenak inbertsio errealei, langileen soldatei eta ohiko

ondasun eta zerbitzuen gastuei dagozkienak dire-larik, 196, 186 eta 159 milioi pezetako kopuruekin, hurrenez hurren, aurrekontuaren betetzearen %28, 27 eta 23 egiten dutenak, hurrenez hurren.

1995erako dirusarreraren aurrekontuaren bete-tze orokorraren maila %79koa izan da, kapitulurik garrantzizkoenak ohiko transferentziena, eta kapi-tal transferentziena izan direlarik, 193 eta 130 milioi pezetarekin hurrenez hurren, hau da, erre-konozitutako dirusarreraren ehuneko 28 eta 19, hurrenez hurren.

Udalaren dirusarreraren eta gastuen aurrekon-tuaren kitapenean ez dira sartu San Jose Zaha-rretxea organismo autonomoari dagozkionak.

Aurreko paragrafoekin bat etorriz, honako hau gomendatzen da:

Udalaren aurrekontuen behin betiko onespe-nari buruz indarrean dagoen legedian ezarritako epeak betetzea, honek aurrekontua oinarritzko kudeaketa tresna bezala erabiltzea erraztuko baitu.

Gastua aldez aurretik kontrolatzeko prozedu-rak, aurrekontuaren betetze oinarrietan aurreikus-i-ta daudenak, betetzea, eta aurrekontuaren alda-ketak gastua bete aurretik egitea. Gastu igoerek dirusarrera berrietatik edo handiagoetatik edo gastuaren beste sail batzuetan kentzetik edo gutxiagotzetik eratorrita, dagokien finantziazioa izan behar dute.

Gastuen erregistrorako sortzapen hatsapena-ren ezarpen zuzena, gastuak sortzen diren momentuan kontabilizatuz, eta ez ordaintzen dire-nean.

Udalaren aurrekontuetan eta hauen kitapene-an Organismo Autonomoaren dirusarrerak eta gastuak sartzea, indarrean dagoen legediaren arabera.

VI.2. CORELLAKO UDALAREN EGOERA EKONOMIKOAREN AZTERKETA 1995EKO ABENDUAREN 31N.

Ondoren 1995eko abenduaren 31n Udalak zuen Diruzaintza Gerakinaren Egoera aurkezten da laburbilduta:

	Milioi pzta.
Kobratu gabeko eskubide garbiak	55
Ordaindu gabeko betebehar garbiak	(163)
Diruzaintzako fondo likidoak	36
Diruzaintza gerakina	(72)

Kobratu gabeko eskubideak 22,3 milioi pezeta gutxiagorekin agertzen dira, 24 hilabete baino gehiagoko aintzinasuna izanik kobraketa zalan-tzan dagoen kobraketat hartu baitira.

Udalaren ekonomi eta finantza-egoera behar bezala aztertzeke, honako baldintza hauek hartu behar dira kontutan:

- Kobratu gabe dauden hartzekodunen saldoan Iruñeko Aurrezki Kutxarekin 50 milioi pezetaraino kontratatutako kreditu bati dagozkion 28,5 milioi pezeta sartu dira. Kreditu hau prest mantentzen da mugatik hurbil dagoen kopuruan eta urte bateko eperako kontratatzen bada ere, bukatzean berritu egiten da, eta hortaz finantziario iraunkortzat jo daiteke (bankuekiko zorra) kredituaren mugaren kopuruan (50 milioi pezeta).

- Ordaindu gabeko hartzekodunen saldoan ez dira sartu Iritziari buruzko IV atalean adierazitako salbuespenetatik eratorzen diren pasiboak, eragi-

keten mozketan izandako akatsek eta ingresatu gabeko BEZ kuotak eraginda, hauen balioa 53 eta 6 milioi pezeta delarik, hurrenez hurren.

Aurreko paragrafoetan azaldutako baldintzen ondorioak gehituz gero Diruzaintza gerakinaren egoera negatiboa izanen litzateke gutxi gora behera 83 milioi pezetatan.

1995eko aurrekontuaren kitapenak Diruzaintza gerakin negatiboa aurkezten duenez, 6/90 Foru Legearen 291. artikuluan eta 2/95 Foru Legearen 230. artikuluan xedatutakoa betez, Udalak berdintzeari ekin behar izan zion.

Ondoren 1994 eta 1995eko ekitaldietarako Udalaren dirusarreraren eta gastuen betetzeen konparazioa eta Iritziari buruzko IV atalean azaldutako salbuespenen ondorioek doituriko 1995eko betetzeari buruzko balioztapena (milioi pezetatan) aurkezten dira:

GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZEA

Kontzeptua	Onartutako betebeharrak			
	1994	1995	Doiketak	1995 doitua
Langileak	196	186	2	188
Ohiko ondasunak eta zerbitzuak	118	160	4	164
Finantza gastuak	24	36	0	36
Ohiko transferentziak	17	15	0	15
Inbertsio errealak	313	196	39	235
Kapital transferentziak	0	29	8	37
Finantza-pasiboak	61	75	0	75
Gastuak guztira	729	697	53	750

DIRUSARREREN AURREKONTUAREN BETETZEA

Kontzeptua	Onartutako eskubideak			
	1994	1995	Doiketak	1995 doitua
Zuzeneko zergak	89	98	0	98
Zeharkako zergak	18	20	0	20
Tasak eta bestelako dirusarrerak	104	68	0	68
Ohiko transferentziak	167	193	0	193
Ondare eta herrilurretako dirusarrerak	3	11	0	11
Inbertsio errealen besterenganatze	6	64	(6)	58
Transf. eta best. finantza-dirusar. Kap. gast.	139	130	0	130
Finantza-pasiboak	192	94	0	94
Dirusarrerak guztira	718	678	(6)	672

1995eko ekitaldiko defizita, zenbateko doituetatik abiatuz ateratzen dena, 78 milioi pezetakoa da.

1995 dotiua eta 1994 ekitaldietako dirusarren eta gastuen betetzeen arteko konparaziotik honako hau ondorioztatzen da:

1995ean ehuneko 3ko igoera orokorra izan da gastuetan. Kapituluaz kapitulu izandako aldaketak aztertuz, inbertsio errealeen murrizte garrantzitsua ikusten da, ehuneko 25koa, ohiko gastu eta transferentzia handiagoek konpentsatzen dutena, eta baita azken urteetako inbertsioak finantziatzeko beharrezkoa izan den zorpetzeak sortu dituen finantza-gastuen igoerak eta finantza-pasiboan aldaketak konpentsatua. Azken finean, ohiko gastuak %15 igo diren bitartean, kapital gastuak %7 jaitsi dira.

1994rekin alderatuz, %6 murriztu dira dirusarrak 1995ean. Gehien murriztu den kapitulu finantza-pasiboan aldaketa da, 1994an bi banku-mailegu garrantzitsu hitzartu baitziren. Inbertsio errealeen besterenganatze, ondare dirusarrak eta ohiko transferentziak kapituluetan igoera handiak izan dira.

Aipatuenez, Udalak 50 milioi pezetako kreditua du banku batekin, urtero epea bukatzean berritzen duena, eta, beraz, finantziario iraunkortzat jo daitekeena. Esleipen berria eta kredituaren kitapena, 50 milioi pezetako zenbatekoaz, dirusarrera eta finantza-pasiboan aldaketa gastu bezala azaldu dira ekitaldiko aurrekontuaren kitapenean.

Ondoren Corellako Udalaren ekonomi egoerari buruzko hainbat adierazle aurkezten dira:

Kontzeptua	1994 (*)	1995
Defizita (milioi pezetatan)	11	19
Dirusarreren betetze maila	91%	79%
Gastuen betetze maila	92%	78%
Aurrezki gordina (1) (milioi pezetatan)	50	29
Aurrezki garbia (2) (milioi pezetatan)	(35)	(82)
Zorpetze maila (3)	22%	28%
Zorpetze muga (4)	13%	7%
Gastu publikoa bizilaguneko (pezetatan)	112.346	109.089
Langile indizea (5)	27%	27%
Inbertsio indizea (6)	45%	34%
Presio fiskala (7) (pezetatan)	33.040	29.150
Dirulaguntzen menpekotasuna (8)	42%	48%

* 1994. urteko gastuak auditatu gabe daude.

(1) Ohiko dirusarrak-funtzionamendu gastuak. Dirusarreretako 1. kapitulutik 5.era dira ohiko dirusarrak, eta gastuetako 1., 2. eta 4. kapituluak dira funtzionamendu gastuak.

(2) Aurrezki gordina-zama finantziarioa. Zama finantziarioa gastuetako 3. eta 9. kapituluak osatzen dute.

(3) Zama finantziarioa / Ohiko dirusarrak x 100.

(4) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrak x 100.

(5) Langileen soldatak / Gastuak.

(6) Inbertsio gastuak, ohiko transferentziak eta kapitalekoak / Gastuak

(7) Tributu bidezko dirusarrak (1., 2. eta 3. kapituluak) / Bizilagunen kopurua

(8) Transferentzien bidezko dirusarrak (4. eta 7. kapituluak) / Dirusarrak.

Iritziari buruzko IV. atalean adierazitako salbuespenen ondorioak kontutan hartzen baditugu eta urtero berritzen den epe motzeko kreditua, 50 milioi pezetakoa, finantziario iraunkortzat jotzen badugu, Udalak 70 milioi pezetako defizita eta 38 milioi pezetako aurrezki garbi negatiboa izanen lituzke, eta bere zorpetze maila ehuneko 16koa izango litzateke ehuneko 6ko mugaren aurrean.

Corellako Udalaren 1995eko hainbat adierazle Nafarroako Udalek 1994an izan zituztenekin alderatzen baditugu (Ikus. 1996ko uztailaren 16ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 46. zenbakia), honako datu hauek atera ditzakegu:

	Corella	Nafar. Udalak 94
Gastuak bizilaguneko	109.089	100.405
Langile indizea	27%	29%
Inbertsio indizea	34%	32%
Presio fiskala (*)	29.150	40.679
Dirulaguntzen menpekotasuna	48%	44%

(*) Kontutan hartu behar da Corellako Udalak 1994an erabilitakoaren ondoan tributu bidezko dirusarrera sailkapen desberdina dakarren aurrekontu egitura berria ezartzen duela. Honi buruz 1994an presio fiskala 33.040koa zela adierazten da.

Adierazle ekonomikoaren azterketatik honako hau azpimarra dezakegu:

Bi ekitaldietan, 1994an eta 1995ean, Udalaren finantza-egoerak aurrezki garbi negatiboa eta muga baino askoz handiagoa den zorpetze maila ditu.

Kontutan hartuz 1995eko ekitaldiko zama finantziarioa 61 milioi pezetakoa dela, honetatik 25 milioi pezeta maileguen eta kredituen amortizazioei dagozkielarik (zirkulatzailaren kreditua, urtero berriztagarria, finantziario iraunkortzat jotzen), eta 36 milioi pezeta interesei, 1995ean ohiko dirusarrak ez dira aski funtzionamendu gastuak eta bankuekiko zorpetzearen korrituak ordaintzeko.

Udalak duen finantza-egoeran epe motzera likidezia behar handiak aurreikus daitezke. Zorpetze maila altuak mailegu berriak ematea zail dezake eta aurrezki garbi negatiboak ez du utziko hurrengo urteetan inbertsio garrantzitsuei aurre egiten.

Neurri handi batean inbertsio maila handiak eragina, biztanleko gastu handia ikusten da Core-

llan, inbertsio indizea Nafarroako udalek 1994an batezbeste zutena baino handiagoa delarik.

1995erako ondoriozko presio fiskala 1994an kalkulaturiko Nafarroako batezbeteskoa baino dexente txikiagoa da eta transferentzien (ohikoak eta kapitalekoak) zamak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzetatik batezbestekoa baino menpekotasun handiagoa du. Hala ere, adierazle ekonomikoan azterketa konparatiboan kontutan hartu behar da, aurrekontuen egituraren aldaketaren ondorioz, 1994tik 1995era zenbait dirusarreraren sailkapen irizpidean aldaketak izan direla, tributu bidezko batzuk tributu bidezkoak ez izatera pasaz.

1995ean gertatu diren gertaerarik azpimarragarrienak honako hauek izan dira:

Inbertsio jarduketa garrantzitsu baten jarraipena, kaleetako urbanizazioa nabarmenduz.

Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erosteari dagozkion gastuen gehitze adierazgarria.

Ibilgetuaren salmentei dagozkien dirusarrera handiak.

Udalaren finantza-egoera suspertzeko neurriak ezartzea gomendatzen dugu, esate baterako ohiko gastuari eusteko eta razionalizatzeko politikak eta inbertsioen hautaketa, nahiz Udalaren aurrezki garbia positiboa izan dadila errazteko dirusarrera handiagoak lortzeari begira tributu bidezko dirusarrerak berrikustea. Horretarako Finantza Orekarako plan bat egitea aztertu behar litzateke.

Aldez aurretik diru beharrak eta baliabideak ezagutzea ahalbidetuko duen eta aurrekontuaren betetze tresna bezala balioko duen diruzaintza plan bat egitea.

VI.3. AURREKO TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Kontuen Ganbarak egindako aurreko fiskalizazio txostenean adierazitako gomendioen ezarpenari buruz honako hau esan dezakegu:

VI.3.1. Antolaketa orokorra.

1990eko fiskalizazio txostenean Udalak emandako hainbat zerbitzu deszentralizatzeko gomendioak jarraitu dira, esate baterako organismo autonomoa izatera pasa den zaharretxearen kasua.

1995ean idatziz zehaztu gabe jarraitzen dute administrazio-kontabilitaterako oinarrizko barne prozedurek arlo nagusietan (erosketak, nominak, kobraketak eta ordainketak).

Funtzioak eta ardurak mugatuta daudenez, 1995ean funtzio gehiegi biltzen ditu oraindik pertsona bakar batek (idazkaria, honez gain, kontuhartzailea eta gordailuzaina ere bada batera). Kontuhartzaile lanpostua urte horren bukaeran bete da.

Administrazio-kontabilitate oinarrizko barne prozeduraak idatziz zehaztea eta funtzioen banaketa, Udaleko beste funtzionario bati eman ahal zaion gordailuzainarena bereziki, gomendatzen ditugu.

VI.3.2. Aurrekontua eta kontabilitatea.

Azken urteetan 1990eko txostenean adierazitako kontabilitateari buruzko hainbat gomendio gauzatu dira, 1995ean kontabilitate kudeaketaren informatizazio maila handia eta ondare kontabilitatea ezartzen hastea ahalbidetu dituztenak.

Ondare kontabilitatea ezartzearen xedea Udalaren urteko kontuak Kontabilitate Publikoaren Planean ezarritako hatsapen eta arau fiskalen arabera egitea da, horretarako kontabilitate politika egokiak ezartzea eta kontabilitate aplikazio informatikoak Plan honen arabera egokitzea gomendatzen dugularik.

1995ean ez dago aurrekontuaren betetzearen jarraipen egokirik. Indarrean dagoen araudiaren arabera erredaktatutako aurrekontuaren betetze oinarriak daude, baina ez dira modu egokian gauzaten. Aurrekontuaren aldaketak kreditua gehitu edo gutxitu beharra izan ondoren onartzen dira.

Hainbat gasturen kontabilitate erregistroa bete baino askoz ere beranduago egin izan da hauen betetzea finantziatzeko behar den kontusailik ez zegoelako.

Honez gain, hainbat kontabilitate agirik ordaintzeko agindua besterik ez dute euskarritzat.

Aurrekontuaren betetze oinarriak betetzea gomendatzen dugu, gastua bete baino lehen aurrekontuaren aldaketen onarpenaren bidez aurrekontuaren kontrol egokia eginez, honek eragiketa ekonomikoen kontabilizazioan eguneratzea ahalbidetuko baitu.

Era berean, izandako gastuei dagozkien egiaztagiriak eskatu eta artxibatu behar dira kontabilitate agirien euskarritzat.

VI.3.3. Inbentarioa.

1993ko abenduaren 31n Udalak zituen ondasunen inbentario zehatza dago, egun gaurkotu gabe dagoena.

Udalaren ondasun higiezin guztiak ez daude Jabetzaren Erregistroan eskrituraturik eta erregistraturik.

Ondasunak balizko arriskuen kontra aseguratuturik badaude ere, orokorki aseguratutako zenbatekoek ez dituzte estaltzen ibilgetuen kontabilitate balioak.

Ondasunen inbentarioa beti egunean izatea gomendatzen dugu ibilgetuen kontabilitate balioen euskarria izan dadin.

Era berean, Udalaren ondasun higiezinak eskrituratu eta erregistratu beharko lirateke hauen jabetza bermatzeko eta aseguru polizen estaldurak berrikusi beharko lirateke aseguratutako ondasunen balioa behar adina estal dezaten.

VI.3.4. Diruzaintza.

1990eko txosteneko gomendioei dagokienez, bankuan helbideratzea sustatu da, nominen ordainketari eta aldizkako dirusarrerari aplikatuz. Ondare kontabilitatetik abiatuz, diruzaintza kontuen zerranda eguneratua eta bankuko maileguen pasiboen zerranda eskura daitezke.

VI.3.5. Langilegoa.

1990eko ekitaldiari buruzko txostenean adierazitako gomendioei kasu egin die Corellako Udalak, nominen kudeaketa lanak (ordainketen kalkulu, nominaren ordainagirien prestaketa, kontabilitate agiria, kontablizazioa eta ordainketa) pertsona bakar batek egiten segitzen duela izan ezik.

VI.3.6. Inbertsioak.

Inbertsioen arloan kontrataziorako ohiko jokabidea zuzeneko esleipena da, balio gutxiko lanetan enpresa asko aurkezten direlarik. Balio handiagoko lanak lehiaketaren bidez esleitu dira.

VI.3.7. Dirusarrerak.

Orokorrean kasu egin zaie 1990eko ekitaldiari buruzko txostenean azaldutako gomendioei, baina 1995ean kontratuari eta fidantzari dagokienean agente betearazlearen egoera erregularizatu gabe dago oraindik eta ez da diseinatu eta ezarri kudeaketarako eta kobraketarako emandako ordainagirien jarraipenerako eta kontrolerako prozedurarik. Aipa daiteke 1996ko urtarrilaren 1eko datarekin agente betearazlearekin kontratu bat gauzatu dela.

Espedientea egin eta organo eskudunak onartu ondoren, ordainagirien deusezteak eta huts egiteak kontrolatzea eta dagozkien kontabilitate hornidurak ematea ahalbidetuko dituen saldo zordunen jarraipenik ez da egiten.

Kobratzeke dauden zorren kontrola betetzeko prozedurak ezartzea gomendatzen dugu, zordunari, zorraren jatorriari eta datari, mugapenari, hala gertatuz gero ez ordaintzeko arrazoiei eta kobratzeko jardueri buruzko informazioa emanen duena.

VI.4. ANTOLAKETA ETA BARNE KONTROLA.

Ondoren antolaketarekin eta barne kontrolarekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko iruzkinak eta gomendioak, txostenaren beste atal batzuetan aipatu ez direnak, adierazten dira:

VI.4.1. Orokorra.

Kontabilitate eta administrazio ziklo nagusien prozedura idatzirik ez dago.

VI.4.2. Diruzaintzaren kudeaketa.

Finantza arloko kudeaketa dirusarreraren eta gastuen, kobraketaren eta ordainketaren kontabilizazio lanak eta kutzako diruaren erabilera biltzen dituen pertsona bakar batek egiten du.

Bankuko transferentzien kontabilitate erregistroan atzerapen handiak eta ordainketa eragiketa batzuk apunte bakar batean egindako azken ordainketaren datarekin batera erregistratu direla ikusi da, eta baita ere ordaindutako zenbateko txiki-kiko zenbait gasturen dokumentazio euskarri falta.

Saldo txikiak eta oso mugimendu gutxi dituzten banku kontuak zabalik mantentzen dira.

Entitatean sinadura duen edozein pertsonak erabil ditzakeen fondoak daude hainbat banku kontutan.

Ordainketa batzuk eramaile-txekeen bidez egiten dira.

Kutxa kontaktak eta banku egiaztatzeak ez dira ezarritako maiztasunaz egiten.

VI.4.3. Hartzekodunak.

Ez da eskuratu 1995eko abenduaren 31ri dagokion egoera balantzean agertzen diren "Hartzekodun desberdinak" ordaintzeko saldoa osatzen duen zehaztasuna, 10 milioi pezetako zenbatekoa duena, nahiz eta diru horren zatirik handiena hartzekodun bakar bati dagokion.

VI.4.4. Ibilgetua.

Ez da inolako kontrolik egiten Udalaren ondasunen inbentarioaren gainean eta Administrazioako langileek ez dute ezagutzen kudeatzen duen aplikazio informatikoaren funtzionamendua, erabilera mugatzen duena; egia da hala ere zenbateko

horren zatirik garrantzitsuena hartzekodun bakar bati dagokiola.

Honako hau gomendatzen dugu:

Administrazio eta kudeaketa prozedurak idatziz ezartzea langile guztiek sistemak ezagut ditzaten eta lanak eta ardurak emanda izan ditzaten.

Administrazioko langilegoaren egiturak ahalbidetzen duen neurrian, diruzaintzaren kudeaketa arloan lan banaketa.

Banku eragiketak egunean eta banan-banan erregistratzea eta ordaindutako gastu guztietarako dagokien gastuaren dokumentazio euskarrira eskatzea.

Eragiketarik ia egiten ez den banku kontuak ixtea.

Ordainketak txeki izendunen bidez egitea.

Banku kontuetako diruaren erabilera gutxienez bi pertsonaren sinadura amankomunaren bidez egin behar izatea.

Kutxa kontaketak eta banku egiaztatzeak gutxienez hilabeteko maiztasunaz egitea.

Udalaren zorrak banan-banan erregistratzea, ordainketak modu egokian, zenbatekoen arabera eta dagozkien datetan, egin ahal izateko hartzekodun desberdinak identifikatuz. Saldo txikiak eta ez errepikariak direnean, kontu orokor batean erregistratzen badira kontabilitatetik kanpo informazio aski duen erregistroa izan behar du.

Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratzea-ri ekitea.

Era berean, Udalak baliabideak kudeatzeko duen eraginkortasuna eta ekonomia neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak, xedeak eta bitartekoak izateko prozedurak martxan jarri beharko lirateke.

VI.5. GASTUAK.

VI.5.1. Langileen soldatak.

Langileen soldaten kapituluak, 186 milioi pezetako onartutako betebeharrak dituena, aurrekontuaren betetzearen %27 da.

Kapituluaren betetze portzentaia ehuneko 100ekoa izan da behin betiko aurrekontuan.

Langileen soldaten kapituluak Udaleko funtzionarioak, lan-kontratuko langileak eta aldi baterako langileak eta Gizarte Segurantzari eta Montepioei ordaindutako kuotak sartzen dira.

Kontabilitate saldoak arrazoiz isladatzen ditu Udaleko langileen soldatak salbuespen batekin: 1995eko abenduko gizarte aseguruaren kuota "patronala", 2,5 milioi pezetakoa, 1996an erregistratu da gastu bezala, ordainketa irizpidearen arabera.

Era berean, egindako lanaz honako hau aipatu behar da:

- Ezin izan dira lan-kontratuko langileen soldata guztiak egiaztatu, kontabilitate kontzeptu batzuen eta nominen urteko laburpenaren artean diferentzia txikiak atzeman baititugu, Udalaren arabera soldaten urteroko eguneratzean sortu direnak. Ezin izan ditugu parekatu 1995eko ekitaldiko nominen zenbateko osoa eta kontzeptu hau dela-eta langileen soldaten kapituluaren erregistratutako gastua.

- Atezain, jantzizaindegien eta igerilekuetako futbol zelaiaren zaintze zerbitzuaren kostuari gutxi gora behera dagozkion 2,5 milioi pezeta langileen soldata bezala sartzen da, ohiko ondasunen eta zerbitzuen gastuen kapituluaren kontabilizatu behar direnean.

- Era berean, kanposantua eta hiltegia zaintzen dituzten pertsonen emandako lansari txikiak agertzen dira erregistraturik, ordainketa hauek nominan ez daudenean eta inolako atxikipen fiskalik ez dutenean.


Plantila organikoa eta langileen zerrenda izenduna modu egokian onartu dira.

Plantilla honela banatzen da:

	Guztira	Bete gabeko lanpostuak
Funtzionarioak	16	2
Lan-kontratuko langile finkoak	6	11
Guztira	22	13

- Udal Taldeei egindako ordainketei dagozkien 3,1 milioi pezetako gastuak erregistratu dira, hauen ordainketa eramaile-txekeen bidez egiten delarik.

Plantila organikotik abiatuz egin den organigrama honako hau da:



F= Funtzionarioa
 LF= Langile finkoa
 LK= Langile kontratatua
 AK= Administrazio kontratua.

Bete gabe dauden 13 lanpostuetatik, 11 aldi baterako langileekin bete dira eta 2 bete gabe daude.

Idazkari kargua administrazio ofizial batek hartzen du behin-behineko egoeran.

Kontuhartzaile kargua bete gabe egon da 1995eko ekitaldi guztian zehar. Lanpostua 1996an bete da.

1995 urteko plantila aurreko txostena egin genuen 1990 urtekoarekin parekatu dugu bilakera ikusteko asmoz. Funtzionarioak 3 gutxiago dira 1995ean eta langile finkoak 4 gehiago.

Plantilako langileez gain, aldi baterako kontratazio ugari daude, 28 pertsona 1995eko abenduaren 31n, batez ere gizarte arloko programei eta herrilanei lotutakoak.

A) Langileen kudeaketa.

Udalak berak egiten ditu nominak.

Kontabilizatorako prozedura korapilatsua da, nominak egiteko dauden bi programek ez dutelako informazio guztia osatzen gero kontabilizatzeko, eta honek nomina egitearen eta kontabilizazioaren artean eskuz egindako prozedurak erabiltzera behartzen du.

1995ean Alkatea Udalean dedikazio osoa izatera pasa da eta horregatik dago nominan 1995eko azaroaren 28tik.

Langile guztiei, funtzionarioei nahiz lan-kontratu dutenei, egiten zaizkie atxikipenak; hala ere, PFEZaren kontura langile batzuei egindako atxiki-

penetan akatsak atzeman dira. Hau gertatzen da atxikipena kalkulatzean aparteko orduak kontutan hartzen ez direlako.

Honengatik guztiarengatik honako hau gomen-dutzen dugu:

Sortzapen hotzapena behar bezala aplikatu, Gizarte Segurantzaren kuotak dagokion ekitaldiko gastutzat erregistratzeko.

Kontabilitate datuen eta nominen hilabeteroko laburpenen arteko berdinketak idatziz dokumentatzea langile gastuen kontzeptu desberdinak (soldatak, gizarte aseguruak eta abar) modu egokian kontabilizatzen direla egiaztatzeko.

Hartutako zerbitzuak beren benetako izaera ekonomikoaren arabera sailkatzea eta kontabilizatzeko, lan harremana dagoenean gastuak lan kontratuaren euskarria izan dezan eta lan nahiz enpresa zerbitzuen alokairua denean dagozkien fakturretan oinarrituta, hala egin behar denean dagokion atxikipen fiskala ezarri.

Udal taldeei egindako ordainketak txeki izendun bidez egin behar dira.

VI.5.2. Ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea.

159 milioi pezetako gastuarekin aurrekontuaren betetzearen ehuneko 23 da. Kapituluaren betetzearen portzentaia behin betiko aurrekontuaren %78koa izan da.

Jarraian kapitulu honetan bildutako gastu kontzeptu nagusietarako 1995eko eta 1994ko ekitaldien arteko konparazioa erakusten da:

Kontzeptua	Milioi pzta.		
	1995	1994	% Aldaketa
Konponketak eta mantenimendua	36	24	50
Hornigaiak (energiak eta ura)	24	21	14
Herri jaialdiak	24	21	14
Zaborra biltzeko zerbitzua	18,5	18	3
Atezaintza zerbitzua	12	0	(*)
Kirolak	7,5	6,5	15
Kultur ekitaldiak	6,5	5	30
Guztira	128,5	95,5	34

(*) Kontzeptu hau eskola taldeetarako, polikiroldegirako, kultur etxerako eta abarrerako kontrataturiko atezaintza zerbitzuek osatzen dute, 1994an beste kontzeptu batzuetan sakabanaturik daudenak.

Azaldutako gastuak gutxi gora behera ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostaeri buruzko kapituluaren %81 dira. Konparazioan azaldutako gastu kontzeptu guztien gehitze garrantzitsua ikus daiteke.

Kontabilitate saldoak arrazoiz azaltzen ditu ohiko ondasunak eta zerbitzuak erosteko gastuak, salbuespen batekin: ekitaldian ez dira erregistratu elektrizitate eta ur hornikuntzekin zerikusia duten 4 milioiko gastu batzuk eta zenbait lan, 1995ean egindakoak eta 1996an kontabilizatu direnak.

Egindako lanaren arabera:

- Erosketen arloan ez dago eragiketen administrazio-kontabilitate erregistroa egiteko prozedura idatzirik.

- Aurrekontuaren Betetzeko Oinarrietan gastu mota honetarako ezarritako prozedurak ez dira betetzen, ohizkoa baita aurretik dagokien krediturako proposamenik fiskalizaziorik edo erreserba ez egitea.

- Gastua baimentzeko eta egiteko faseak, eta baita betebeharraren onarpena pauso bakar batean kontabilizatzen dira, faktura jaso ondoren, hau pertsona edo organo eskudunak onartua izan denean.

- Gastuen fase desberdinen kontabilizazioa pertsona berak egiten du, eta berau da fakturak aztertu eta ordainketak egiten dituenak.

- Batzuetan gastua kontabilizatu aurretik egin dira ordainketak aurrekontu krediturik prest ez zuten gastuak eginak zeudelako.

- Gastu guztiak ez daude legezko baldintza guztiak betetzen dituzten fakturatan oinarrituta eta eramaile-txekeen bidez egin izan dira ordainketa batzuk.

Aurreko guztiarengatik honako hau gomendatzen dugu:

Sortzapen hatsapenaren ezarpen egokia gastuak egiten diren ekitaldian erregistra daitezen.

Gastu mota honetarako ezarritako aurrekontuaren Betetzeko Oinarriak zorrotz betetzea.

Funtzioak modu egokian banatzea fakturen kontabilizazioa eta egiaztapena nahiz hauen ordainketa pertsona berak egitea saihesteko.

Onartu diren ala ez alde batera utzita, jasotako fakturen erregistroa erabiltzea gastu berritan sartu aurretik krediturik dagoen jakiteko.

Izandako gastuen euskarriztat indarrean dagoen araudiaren arabera egindako oinarritzko dokumentazioa (fakturak eta abar) eskatzea eta ordainketak txeki izendunen bidez egitea.

VI.5.3. Finantza gastuak.

36 milioiko onartutako betebeharrak aurkezten ditu, behin betiko aurrekontuaren gaineko betetze portzentaia ehuneko 100 delarik.

Zenbateko hau oso-osorik bankuetako maileguen korrituei dagokie.

Ordainketa irizpidearen arabera kontabilizatzen dira finantza gastuak, ekitaldi bakoitzean aurreko ekitaldian sortutako gastuak erregistratzen direlarik. 1995eko abenduaren 31n sortutako korrituak, ordaindu gabekoak, 6 milioi pezetakoak ziren.

VI.5.4. Ohiko transferentziak.

15 milioi pezetako betetzea duen kapitulu hau aurrekontuaren betetzearen ehuneko 2 da.

Kapituluaren betetze portzentaia behin betiko aurrekontuaren ehuneko 84 da.

Ohiko transferentziak kultur, kirol eta gizarte arloetako jarduetara, eta enpresarioen inbertsioak laguntzera zuzendu dira bereziki, hauen artean udal musika bandari, musika eskolari, Corellano K.E.ri, EDER partzuergoari eta lan lizentziak direla-eta enpresa jarri berriei emandako dirulaguntzak azpimarratzekoak direlarik.

Gure lanean ikusi dugunez, batzuetan, aurrekontu krediturik ez zegoenean, ordainketak gas-tua kontabilizatu aurretik egin dira.

Aurrekontuaren Betetze Oinarriak betetzea gomendatzen dugu, gastua egiteko kreditua dagoela alde aurretiko kontuhartzaitzaren bidez egiaztatuz.

VI.5.5. Inbertsio errealak.

196 milioi pezetako onartutako betebeharrak izanda, gastuen aurrekontuaren betetze osoaren ehuneko 28 da.

Behin betiko aurrekontuaren gainean ehuneko 53koa izan da betetzea. Betetze portzentaia txiki hau herrilan nagusien atzerapenari zor zaio eta baita ekitaldiaren bukaeran egindako (egiaztatutako) inbertsio guztiak erregistratu ez direlako.

Honako herrilan hauek aztertu ditugu:

- 1993-1995 hiru urteko Plana, 82,5 milioi pezetatan betetakoa.
- Laurel kalearen urbanizazioa, 38 milioi pezetakoa.
- Zezenplazako torilen erreforma, hauen gainean 1995ean inolako betetzerik erregistratu ez delarik.

Hiru lan hauetan egindako inbertsioak 120,5 milioi pezetatan erregistraturik daude eta kapituluaren beteta guztiaren ehuneko 61 da.

Eraginkortasun kontuak direla-eta, Hiru Urteko Planaren eta Laurel kaleko lanak batera esleitu eta bete dira. Honez gain, herrilan hauek ukitutako kaleetako hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanei ere ekiten zaie. Hauen jabea edo titularra Moncayoko Ur Mankomunitatea da, baina Corellako Udalaren eta aipatutako Mankomunitatearen arteko lankidetzak akordio baten bidez Udalak diruz lagundu gabeko kostu guztia hartzen du bere gain eta lana kudeatzen du, aipatutako kostua kapital transferentziak bezala erregistratuz.

VI.10 atalean Corellako Udalak kontratatutako herrilaneekin zerikusia duten alderdiak azaltzen dira. Atal honetan 1995eko ekitaldiko aurrekontuan aztertutako herrilaneetarako inbertsio errealen kapituluaren betetzean eragina duten alderdiak baino ez ditugu adierazten.

Hurrengo paragrafoetan azaltzen denez, 1995ean egindako herrilanei dagozkien 39 milioi pezeta ez dira 1995eko ekitaldiko inbertsio errealetan gastu bezala erregistratu.

- 1993-1995 hiru urteko Plana.

Herrilan hau, herriko kale batzuk berritzea, 1995eko martxotik 1996ko utzialera bitartean egin da. Lehiaketaren bidez esleitu da.

Gure lanean argi azaldu da 1995eko ekitaldia itxi ondoren egiaztatutako herrilan kopurua 112 milioi pezetakoa zela, 1995eko azaroaren 30eko data eta 31,6 milioi pezetako zenbatekoa dituen laugarren lan-egiaztatzea 1995ean egindako herrilan bezala erregistratu ez delarik, 1996an kontabilizatuz.

Honi dagokionez, Udalak 1995eko ekitaldiko dirusarrera bezala erregistratu zuen laugarren egiaztatzeari zegokion dirulaguntza, 12,3 milioi pezetakoa, 1995eko abenduaren 13ko 988/95 ebazpenarekin bat etorritik.

- Laurel kalea.

Laurel kaleko herrilanak 1995eko martxotik 1996ko ekainera egin ziren. Esleipena lehiaketaren bidez egin zen.

1995eko ekitaldia ixtean, kontabilizatutako zenbatekoa aurkeztutako lan-egiaztatzeenaren parekoa zen, 38,2 milioi pezetakoa. Data horretan, lanaren zati bat egiteko zegoen arren 31,3 milioi pezetako esleipen zenbatekoa gaindituta zegoen ehuneko 22an.

- Zezenplazako torilen erreforma.

1995eko urriaren 30eko Udal Gobernu batzordearen esleipen zuzenaren bidez kontratatatu zen torilen erreformarako lana.

Zezenplaza ondasun komunitate baten jabe goa da, bertan Corellako Udalaren parte hartzeak gutxiengoa duelarik. Zezenplaza zezenketei buruzko araudiaren eskakizunei egokitu beharrraren aurrean ekin zitzaion lanari.

Gure ustez 1995eko abenduaren 31n guztiz eginda zeuden 7,5 milioi pezetako lan egiaztatze batzuk, 1996ko urtarrilaren 3ko data dutenak, ez dira 1995ean betetako gastu bezala erregistratu.

Honi dagokionez, Udalak bai sartu duela 1995eko ekitaldiko dirusarrera bezala aurrekontuaren ehuneko 40ri dagokion dirulaguntza, 2,9 milioi pezetakoa, 1995eko uztailaren 27ko 604/95 ebazpenarekin bat etorritik, 1995eko abenduaren 31n kobratzeko zegoena.

Inbertsio errealak lanen esleipendunek egindako lan-egiaztatzeen arabera kontabilitatean erregistratzea eta zerikusia duten gastuak eta dirusrerak ekitaldi berean erregistratzea gomendatzen dugu. Era berean, ekitaldia behar bezala ixteko, abenduaren 31n data horretan betetako lanen zenbatekoaren arabera dagozkien egiaztatzeak izatea ere gomendatzeko modukoa litzateke.

VI.5.6. Kapital transferentziak.

Kapitulu honetan onartutako betebeharrak, 29,4 milioi pezetakoak, gastu aurrekontuaren betetzearen ehuneko 4 dira. Behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 63koa izan da betetzearen portzentaia.

1995ean egindako kapital transferentziak honako hauek dira:

- María Villar Díaz Fundazioari egindako diru-ekarpenak.

1995ean 26,7 milioi pezetakoak izan dira eta Jubilatuen Elkarteko lanak finantziatzera zuzendu diren Nafar Gobernuaren dirulaguntzetatik, zenbateko berekoak, Fundazioari egindako diru-ekarpenei dagozkie.

- Hornidura eta saneamendu sareak berritzeko lanen finantziazioa.

Titularra Moncayoko Ur Mankomunitatea den lan hau besteekin batera egiten da eta esleipendun berberak eginda dago. Udalak, Mankomunitatearen bidez, Nafarroako Gobernuak diruz lagundu ez dituen gastuak, zenbatekoaren ehuneko 20

gutxi gora behera (Mankomunitateari ken dakioketen jasandako BEZa salbu), eta entitate honek izan litzakeen finantza gastuak hartu ditu bere gain.

Mankomunitateari egindako ordainketen eta honek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jaso ondoren itzultitako kopuruaren arteko aldeari dagozkion 2,6 milioi pezeta lan honen finantziatziotik eratorritako transferentzia bezala erregistratua zuen Corellako Udalak 1995eko abenduaren 31n. Mankomunitateari aurkeztutako lan egiaztatzeen arabera, 1995eko ekitaldia ixtean egindakoaren zenbatekoa 52 milioi pezetakoa zen, BEZa kanpo, eta, beraz, Corellako Udalak egindako gastua gutxienez 10,5 milioi pezetakoa izanen litzateke.

Aurrekotik abiatuz, 1995eko ekitaldian ez dira kapital transferentzien gastu bezala isladatu gutxi gora behera Udalak finantziatu behar dituen eta egin diren lanen arabera sortutako 7,7 milioi pezeta.

Kapital transferentzien kontabilitate erregistro-rako sortzapen hatsapena ezartzea gomendatzen dugu, onartutako betebeharrak finantziatutako lanen betetze mailaren arabera ager daitezen.

VI.5.7. Finantza-pasiboen aldaketa.

75 milioi pezetako betetzearekin, aurrekontuaren betetzearen ehuneko 11 da, behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 100 bete delarik.

Jarraian 1995eko abenduaren 31ko finantza-pasiboen zerrenda aurkezten da:

Corellako Udala

Finantza pasiboen zerrrenda, 1995eko abenduaren 31n

Entitatea	Finantziatutako kontzeptua	Hasierako zenbatekoa	Emakida urtea	Korrituak	Iraupena urtetan	95-1-1ean zor bizia	Urteko amortizazioa	Mailegu berriak	95-12-31an zor bizia
Nafarroako Gobernua	Borro ureztatzea	8.784.779	1995	7%	20	8.784.779	0		8.784.779
Nafarroako Gobernua	Industrialdea	21.347.589	1990	sin interés	10	12.808.554	2.134.759		10.673.795
Nafarroako Gobernua	Industrialdea	11.697.145	1991	sin interés	10	7.018.284	1.169.714		5.848.570
Nafarroako Caja Rural	Kreditu kontua	39.000.000	1992	Mibor+0'75	15	33.800.000	2.600.000		31.200.000
Nafarroako Aurrezki Kutxa	Zaharretxea	100.000.000	1994	Mibor+0'5	15	100.000.000	6.666.666		93.333.334
Nafarroako Aurrezki Kutxa	BCLren kitapena	160.000.000	1994	Mibor+0'5	15	160.000.000	10.666.666		149.333.334
Nafarroako Caja Rural	Lominsaren nabea	25.000.000	1994	Mibor+0'5	15	25.000.000	1.666.667		23.333.333
Nafarroako Caja Rural	Laurel kaleko lanak	44.320.055	1995	Mibor+0'3	15	0	0	44.320.055	44.320.055
Guztira		410.149.568				347.411.617	24.904.472	44.320.055	366.827.200
Iruñeko Kutxa	Diruzaintza kredit. (*)	50.000.000	1995	Mibor +0,5	1		50.000.000	50.000.000	
							74.904.472	94.320.055	

(*) 1995eko urtarrilaren 3an Iruñeko Aurrezki Kutxarekin kontratutako diruzaintza kreditua, 50 milioi pezetakoa eta 1996ko urtarrilaren 3ko mugaeguna duena, 28,5 milioi pezetatan erabili da 1995eko abenduaren 31n. Kreditu hau urtero berritzen da eta 50 milioi pezetako mugatik hurbil dauden kopurutan prest egoten da; beraz, finantziazio itaunkortzat jo daiteke.

Irizpide honen arabera, aurrekontuaren kitapenean finantza-pasiboen aldaketa bezala aurkeztutako zenbatekoak, gastuenak nahiz dirusarrerrenak, 50 milioi pezetatan gutxiagotu behar dira.

VI.6. DIRUSARRERAK.**VI.6.1. Tributu bidezko dirusarrerak.**

Banakapena, milioi pezetatan, honako hau da:

	Haiserako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Onartutako Eskubideak	Betetzearen %
Zuzeneko zergak	101	98	98	100
Zeharkako zergak	19	19	20	104
Tasak eta best. dirusarrerak	60	66	68	103
Guztira	180	183	186	102

Ikus daitekeenez, zeharkako zergen eta tasen bilketak egindako aurreikuspena gainditu du, zuzeneko zergena aurreikusitakoaren antzekoa izan den bitartean.

1995eko ekitaldian kitatutako zuzeneko zergak hirilur eta landa kontribuzioak eta lizentzia fiskala izan dira.

Zeharkako zergak bezala ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga, eta telefonikaren hegalkina, lurzorua eta lurrazpia erabiltzearen gaineko kanoa.

Ondoren 1995eko eta 1994ko ekitaldietarako Tasak eta bestelako dirusarrerak kapituluaren kontzeptuen arteko konparazioa azaltzen da:

	Milioi pezetatan		
	1995	1994	Aldaket. %
Obra baimena	13	11	18
Zabor-bilketa	20	19	5
Igerilekuak	15	14	7
Lurrazpiaren okupazioa (Iberdrola)	6	6	0
Herri lurren akurapena	0	9	(*)
Montepioen itzultzea	0	17	(*)
Kontribuzio bereziak	0	10	(*)
Guztira	54	86	(37)

Azaldutako dirusarrerak Tasak eta bestelako dirusarrerak kapituluaren %79 dira 1995erako.

(*) Montepioen itzultzeei eta herrilurren akurapenari dagozkien dirusarrerak dirusarreraren izaera ekonomikoaren arabera erregistratu dira 1995ean, Ohiko Transferentziak eta Ondare Dirusarrerak kapituluatan, zenbatekoak 20 eta 8 milioi pezetakoak direlarik, hurrenez hurren. Baldintza hauek, 1994an egindako kontribuzio bereziarekin batera, 1995ean kapitulu honetan izandako diru murrizketa argitzen du.

Egindako lanetik honako hau ondorioztatzen da:

Aldizkako zergen ordainagiriaren ehuneko 80 helbideratuta dauden arren, helbideratze portzentia handiago batera iristeko ahalegina egin behar da.

Udaleko agente betearazleari emandako sariak 1995ean ez zuten dokumentazio euskarriarik, ez baitzegoen zerbitzu-kontraturik eta ez zuen ordainketak justifikatzeko fakturarik egiten. Beste atal batean aipatu denez, 1996ko urtarrilean kontratu bat egiten da eta 1996ko martxotik aurrera zerbitzuei dagozkien fakturak jaulkitzen dira.

Ordaindu gabeko isunen kobraketarik ez da egiten bide betearazlea erabiliz.

Bilketa programan momentuan kobratu gabe dauden ordainagiriak bakarrik jasotzen dira. Hau da, ezin dira eskuratu 1995eko abenduaren 31n kobratu gabe zegoen saldoaren zehaztasunak.

Honengatik hau gomendatzen dugu:

Kobratzean ordainagiriaren helbideratzea sustatzea kobratutako zenbatekoen eta kobratu gabe dauden ordainagiriaren kudeaketa eta kontrola errazteko.

Trafiko isunen berreskurapena sustatu ordaintzen ez dutenen aurka bide betearazlea ezarri.

Ekitaldia ixtean, ekitaldi berriari buruzko datuak sartu aurretik, zorrak banan banan agerian utzi, ezin baita aurreko egoeren zerrendarik eskuratu.

VI.6.2. Ohiko transferentziak.

Behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 99 beteta, ohiko transferentzien kapitulu hau onartutako dirusarreraren %28 da.

Kapitulu honetan Udalak zuzenean trukean deus eman gabe jaso dituen dirusarrerak, tributu bidezkoak ez direnak, sartzen dira, ohiko eragiketarako finantziatzera zuzentzen direnak.

Jasotako transferentzia gehienak Nafarroako Gobernutik datoz.

VI.6.3. Ondare dirusarrerak.

Kapitulu honetako dirusarrera kontzeptu nagusiak herrilurren akurapena eta Udalaren lokalen alokairua dira, gehienak jendaurreko enkantean esleitzen direnak.

VI.6.4. Inbertsio errealeen besterenganatzea.

Inbertsio errealeen besterenganatze kapituluak 64,5 milioi pezetakoa izan da, aurrekontuaren ehuneko 10, behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 102an bete dena.

1994an kapitulu honi dagozkion dirusarrerak 5,7 milioi pezetakoak izan ziren, 1995ean Industrialdeko lurzatiaren salmenta zela-eta gehitze garrantzitsua izan zuena. Gaur egun kobratu gabe dagoen saldo nagusitzat 8 milioi pezeta azaltzen dira, hauek kobratzeko egutegia 2.000. urtera arte luzatzen delarik, hau da, urtean bi milioi pezeta.

Kapituluaren saldoak zentzuz isladatzen ditu 1995eko ekitaldian inbertsio errealean besterengatzea dela-eta izandako dirusarrerak, salbuespen batekin: Udalarena zen Industrialdeko lurzati baten salmentari ezarritako BEZari dagozkion 6,4 milioi pezetaren erregistroa mota honetako dirusarrera bezala.

BEZ kuota hori ez da aitortu, eta beraz ez da sartu Nafarroako Foru Ogasunean. Salmenta, bigarren edo hurrengo transakzio bat izanik, Ondare Bestrentzearen gaineko Zergari lotuta egongo litzateke, BEZari egon beharrean.

Ibilgetuaren salmentetatik lortutako dirusarren erregistroa eragiketari karga ezartzen dioten zergen zenbateko gordinaz egitea gomendatzen dugu, eta zerga hauek Udalak biltzen baditu, aitortu eta sar daitezela Nafarroako Foru Ogasunean.

VI.6.5. Kapital transferentziak.

Kapital transferentzien bidezko dirusarreren kapitulua, 130 milioi pezeta egiten dituena, aurrekontuaren ehuneko 19 da eta behin betiko aurreikuspenaren ehuneko 64 bete da.

Kapitulu honetako dirusarrera kontusail nagusia, 78 milioi pezetakoa, betetako zenbatekoaren %60 egiten duena, Nafarroako Gobernuak hiru urteko Planaren herrilanak finantziatzeko emandako dirulaguntzei dagokie.

Halaber, kapitulu honetako dirusarreretan sartzen dira Jubilatuen Elkartearen finantziario dagozkion 26,7 milioiko dirulaguntzak, hauek ere kapital transferentzien bidezko dirusarrera gisa agertzen direnak, Nafarroako Gobernutik jaso bezain laster María Villar Díaz Fundazioari ematen baitzaizkie.

Kapital transferentziak bezala agertzen dira ohiko gastuak finantziatzeko jasotako dirulaguntzak, 1,9 milioi pezetakoak, ohiko transferentzien bidezko dirusarreren kapituluan kontabilizatu beharko liratekeenak.

Eragiketak, hauen izaera ekonomikoaren arabera, dagokien aurrekontuaren atalari egozte gomendatzen dugu.

VI.6.6. Finantza pasiboak.

Kapitulu honek, hasierako aurrekontua 188 milioikoa eta behin betikoa 204 milioikoa duena, 94 milioiko betetzea izan du, aurrekontuaren dirusarrera guztien ehuneko 14 egiten duena, eta aurreikusitako aurrekontuaren %46ko betetze portzentaiarekin itxi da.

1995eko abenduaren 31ko finantza pasiboan zerrendaren koadroan bete diren 94 milioi pezeta hauek eta hauen gainean egindako iruzkinak azaltzen dira.

VI.7. ORGANISMO AUTONOMOAK.

Corellako Udalak organismo autonomo bat dauka, Corellako San José Zaharretxea.

Aipatutako organismoak 42 milioi pezetako aurrekontua du, Udalak 1995eko maiatzaren 18an onartua, baina hau ez da Udalarenean sartzen. Estatutuetan ezarrita egon arren, Organismoak ez du 1995ean aurrekontuen kontabilitaterik eraman, eta bakarrik sektore pribatuaren kontabilitate hatsapenen asraberera prestatuak finantza egoerak aurkeztu ditu.

1996an akats hau zuzendu egin da eta kontabilitatea Udalak ezarritako Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorriari egokitu zaio.

Irtizari buruzko IV atalean aipatutako salbuespenekin, V atalean adierazitako finantza egoerak zentzuz isladatzen dituzte Organismo Autonomoaren egoera finantzieroa eta 1995 urteari dagozkion ekitaldian egindako eragiketen emaitzak.

Gure lanaren bitartez honako hau azaldu da:

Organismo Autonomoa 1994ko maiatzaren 17ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez sortu zen aurretik Patronatu bezala zegoen San José Zaharretxearen funtzionamenduari jarraitzeko. Ondorio juridikoei dagokienez, entitate integrazio hau, Organismo Autonomoa eta Patronatua, berez entitate bakarra bailitzan funtzionatzen duena, ez da burutu. Honela, ikusten dugu 1994an, 1995ean eta 1996an identifikazio fiskalerako bi kode desberdin erabili direla (bat organismo autonomoarena eta beste Patronatuarena) eta bi lantoki desberdin Gizarte Segurantzarako (hilabetero gizarte aseguruaren bi kitapen aurkeztu beharraz).

Ez dira egiten kuxako kontaktak eta berdintze bankarioak.

Gastuak fakturaren dataren arabera erregistratzen dira eta honen ondorioz 1995ean sortutako gastuak hurrengo ekitaldian kontabilizatzen dira. Gure azterketan aurkitutakoak ez dira adierazgarriak.

1995ean langile batzuei ezarritako PFEZaren atxikipenak legezko tauletan epe horretarako ezarritakoak baino txikiagoak ziren.

Gomendatzen dugu:

Ekitaldi bakoitzeko dirusarrera eta gastu aurrekontuen likidapen egoera –Udalarenean sartu behar duena– egitea.

Egindako eragiketen erregistro egokirako sortzapenaren irizpidea ezartzea.

Organismo Autonomoaren egoera juridikoa argitzea eta bere funtzionamenduaren errealitateari egokitzea.

Kutxako kontaketak eta berdintze bankarioak idatziz gauzatzea.

PFEZaren atxikipenak berrikustea eta doitzea, langileei indarrean dauden legezko taulen arabera eginez.

VI.8. BETETZE FUNTZIONAL-EKONOMIKOA.

Corellako Udalak gastuen aurrekontuaren betetzean jarraitutako lehenetasunak ezagutzeko asmoz, Finantza Egoerei buruzko V epigrafean jasotako sailkapen funtzional-ekonomikotik atera diren dirusailak bilduz, gastu kontzeptu nagusiak laburbildu ditugu eta ondoko hauek dira:

Kontzeptua	Milioi pzta.
Hirigintza	212
Zor publikoa	111
Pentsioak eta bestelako prestazioak (gizarte aseguruak)	85
Kultur sustapena	38
Administrazio orokorra	35
Industria	35
Segurtasuna	34
Kirolak	32
Festak	30
Guztira	612

Azalduetako kontzeptuak eta zenbatekoak 1995eko aurrekontuaren kitapenean betetako gastuen ehuneko 88 dira.

Ondoko argibide hauek aipatu behar dira:

Zor publikoan banku maileguen amortizazioak eta hauen korrituak sartzen dira.

Pentsioak eta bestelako prestazioak kontzeptuak Udaleko langileek Gizarte Segurantzari eta Montepioei emandako kotizazioak biltzen ditu.

Kultur Sustapenean Nafarroako Gobernuak María Villar Díaz Fundazioari Jubilatuen Elkarteko lanak 26,7 milioi pezetatan finantziatzeko emandako dirulaguntza eta Udalak Corellako musika bandari emandako 3,7 milioi pezetako dirulaguntza sartu dira, beste kultur jarduera batzuen artean.

Industrian inbertsio errealetako 30,8 milioi pezeta azaltzen dira, Industrialdean lurzatiak erosteko, hauek gehienak 1995ean besterengatu direlarik; honez gain, hainbat enpresari lan baimenen zenbatekoen truke emandako dirulaguntzak eta EDER partzuergoari egindako diruekarpenak ere badaude.

VI.9. 1995EKO ABENDUAREN 31N UDALAREN EGOERA BALANTZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

VI.9.1. Orokorra.

Corellako Udalak aurkeztu duen 1995eko abenduaren 31n egoera balantzeak egoera finantziero zaila adierazten du, 49 milioi pezeta egiten dituen maniobra-fondo negatiboa duela, hurrengo paragrafoetan azalduetako doiketak eta sailkapenak eginez gero zenbateko handiagoa izango lukeena.

VI.9.2 Ibilgetu materiala eta erabilera orokorrekoa.

Corellako Udalaren ondasunen inbentarioa Trabajos Catastrales S.A. enpresak egin zuen 1993an eta Udalaren Osoko Bilkurak 1995eko abenduaren 23an onartu zuen.

1993ko abenduaren 31n Udalaren ondasunen inbentarioaren laburpen bat ondoko hau da:

	Milioi pzta.
Hiri lurrak	99
Landa lurrak	48
Hiri eraikinak	1.273
Ondasun higigarri historiko-artistikoak	2
Ibilgailuak	3
Bestelako ondasun higigarriak	34
Guztira	1.459

Udalaren ondare kontabilitatean 1995eko ekitaldiko hasierako saldo bezala sartu dira ondasunen inbentariotik ateratzen diren baloreak, San José Zaharretxearen ondasunak kenduz, hauen balioa, 1995eko hasieran 176,4 milioi pezetakoa zelarik.

Orokorrean inbentarioan sarturiko ondasunak erosketaren balioarekin agertzen dira (erosketaren dokumentazio euskarria dagoenean) edo katastro balioarekin, erosketaren datari eta balioa galtzearen arabera amortizazioak ezar daitezkeen balioetsitako bizi baliagarriari buruzko informaziorik ez dagoelarik. Badira baloratu gabeko artikulua. Ondasunen inbentarioa ez da berri 1993an egin zenetik.

Ibilgetu materialaren eta erabilera orokorrera zuzendutakoaren kontabilitate balioen erregistro euskarri egokirik ez dago, 1993ko abenduaren 31ri dagokion Udalaren ondasunen inbentarioa, 1995eko ekitaldiko hasierako kontabilitate saldoen erregistorako oinarritzat erabili izan dena, ez baita egin zenetik eguneratua izan, 1994an egindako inbertsioei eta besterenganatzei dagozkien aldaketak sartu ez direlarik.

Aurrekontuen kontabilitatean erregistratutako inbertsio errealei dagokien zenbatekoa ibilgetu materialaren alta bezala azaldu dira. Zenbateko hauek ez dituzte jasotzen 1995eko data duten lanen egiaztatzeak, 38 milioi pezetakoak.

Ibilgetuak salmenten ondorioz izandako bajak besterenganatzearen balioaz erregistratzen dira, ibilgetuan (ondasunen inbentarioan) baloratzen den zenbatekoari baja eman beharrean.

Ez dira zuzkitzen ibilgetu materialaren ondasunen amortizazioak.

Ibilgetuaren kontabilitate-balioen euskarri egokia izatearren Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratzea gomendatzen dugu, bertan ondasunen banan-banako zerrenda, erosketaren data, erosketaren kostuari emandako bizi baliagarria, urteko amortizazioak, metatutako amortizazioa, balio garbiak eta abar azalduko direlarik.

Halaber ibilgetuaren ondasunekin egindako eragiketen kontabilitate erregistro egokirako kontabilitate politikak zehaztu behar dira. Altak erosketaren kostuz erregistratu behar dira eta bete diren epean; bajak beren kontabilitate balioez, izandako etekina edo galera azalduz, eta amortizazioak balioa gal dezaketen ondasunetarako balioetsitako bizi baliagarriaren arabera kalkulatu behar dira.

VI.9.3. Ibilgetu inmateriala.

Kontabilitate planaren ezarpena dela-eta, heziketa gastuei dagozkien 1,3 milioi pezeta agertzen dira erregistratuta.

VI.9.4. Ibilgetu finantziarioa.

Saldoa Corellako zezenplazaren jabea den ondasun komunitatean gutxiengoan parte hartze-ko kostuari dagokio.

VI.9.5. Zordunak.

1995eko abenduaren 31n kobratu gabeko zorren zehaztasunak, sortutako urtearen arabera, eta bildutakoa eta kobratu gabe dagoena honako hau da gure azterketaren datan:

Zorraren sorrera urtea	Saldoa 95-12-31	1996an kobratua	Kobratzeke
1988	170.196	0	170.196
1989	281.912	6.044	275.868
1990	978.556	9.394	969.162
1991	2.228.340	10.346	2.217.994
1992	2.601.975	11.234	2.590.741
1993	16.280.294	625.206	15.655.088
1994	4.706.448	576.286	4.124.715
1995	50.027.758	28.082.099	21.945.659.
	77.275.479	29.320.609	47.949.423.

Aintzinasuna eta berrikuspenaren datan kobratzeke dauden zorren kontzeptuak direla-eta, 22,3 milioi pezetako saldoen kobraketa zalantzan ikusten da, VI.2 atalean Diruzaintzako gerakinari buruzko iruzkinetan adierazten denez.

Behin aztertuz gero berreskuratzea zalantzan jartzen den saldoetarako kaudimengabeziarako

hornidura jartzea gomendatzen dugu. Ekitaldia itxi denetik kontatuta mugaeguna 12 hilabetetik gora duten zorrak epe luzera erregistratu behar dira.

VI.9.6. Diruzaintza.

Diruzaintzaren xehetasuna 1995eko abenduaren 31n ondoko hau da:

	Pezetak
Kutxa	382.475
Bankuak, kontu korronteak eta aurrezkikoak	15.687.546
Kreditu kontuetan erabilgarri	20.686.726
Guztira	36.756.747

“Kreditu kontuetan erabilgarri” saldoa Nafarroako Caja Ruralaren kreditu baten erabili gabe-

ko diruari dagokio, balantzearen pasiboan kreditu entitateekiko zorrak bezala agertzen dena, kredituaren mugaren zenbatekoan, 1995eko abenduaren 31n 31,2 milioi pezetakoa zena.

VI.9.7. Fondo propioak.

Fondo propioen kontuen xehetasuna eta mugimenduak 1995eko ekitaldian zehar ondoko hauek dira:

	Hasierako saldoa	Zor	Hartzeko	Azken saldoa
Ondarea	1.081.983.471	0	0	1.081.983.471
Esleipenean emandako ondarea	(176.399.913)	0	0	(176.399.913)
Ekitaldiaren emaitza	0	(36.494.765)	0	(36.494.765)
Guztira	905.583.558	(36.494.765)	0	869.088.793.

Ekitaldiaren hasieran kontabilizatutako ondarea data horretako aktiboaren eta pasiboaren arteko aldeari dagokio.

Udalaren ondarean ez dira sartzen higiezin balioa eta organismo autonomoaren instalazio nagusiak.

VI.9.8. Kapital subentzioak.

Toki entitateetako sektore publikoan ezarritako kontabilitate planarekin bat etorriz, kapital subentzioak kapital transferentziengatik dirusarrera aurrekontuan onartutako eskubideei dagozkie.

VI.9.9. Epe luzerako zorrak.

1995eko abenduaren 31ko egoera balantzean data horretan finantza entitateekin izandako mailegu eta kredituen saldoak epe luzerako zorrak bezala azaltzen dira. Saldo hauen artean maileguen etorkizuneko amortizazioei eta balantzaren dataren hurrengo 12 hilbateetan mugaeguna duten kredituen mugaren gutxitzei dagozkien 28,3 milioi azaltzen dira.

Ez da hornitu ekitaldia ixtean ordaintzeke zeuden maileguen eta kredituen sortutako korrituei dagokien zuzkidura, gutxi gora behera 6 milioi pezeta egiten duena.

VI.9.10. Hartzekodunak agindutako ordainketengatik, entitate publikoak eta bestelako hartzekodunak.

Hartzekodunak agindutako ordainketengatik saldoan, ohiko ekitaldietako ordaintzeke dauden ordainketen epigrafean, 1995eko abenduaren 31n finantza entitate batekin duen kreditu baten hornitutako saldoari dagozkion 28,5 milioi sartzen dira,

kreditu entitateekiko epe motzerako zorra bezala azaldu beharko liratekeenak.

Ez da erregistratu epe motzerako pasibo bezala 1995ean datatutako lanen egiaztatzeen zenbatekoa, 39,1 milioi pezetakoa, eta ezta ere 1995ean hornidura eta saneamendu sareak zaharberritzeko lan egiaztatzeetan izandako kostuari dagokiona (lan hauen titularra Moncayoko Ur Mankomunitatea da), 7,7 milioi pezetakoa.

Halaber, ez dira epe motzerako pasibo bezala azaldu gutxi gora behera 6,1 milioi pezetako zenbatekoa duten zorrak, 1995ean sortutako gastuekin zerikusia dutenak eta batez ere 1995eko abenduko aseguru sozialei (kuota patronala), hornidura elektrikoari eta mota desberdinetako lanei dagozkienak.

Ez dago Nafarroako Foru Ogasunarekiko pasibo bezala azalduta 1995eko ekitaldian 6,4 milioi pezetatan egindako ibilgetu materialaren salmenta baten BEZa, gure azterketaren datan aitortu gabe dagoena.

Ekitaldia itxi eta hurrengo 12 hilabeteetan mugaeguna duten kreditu entitateekiko zorrak epe motzera sailkatzea gomendatzen dugu. Halaber, sortutako korrituak eta ekitaldia ixtean ordaindu gabe daudenak epe motzera saldo handiago bezala erregistratu behar dira.

Sortzapen hatsapenaren ezarpena gomendatzen dugu ekitaldi bakoitzean izandako gastuak egozteko, dokumentazio euskarria edo gastu horien ordainketa hurrengo ekitaldiak datatuak dauden ala ez alde batera utzirik.

Nafarroako Foru Ogasunari BEZari lotuta dauden eragiketa guztiak aitortzea eta dagozkien kuotak indarrean dagoen legedian ezarritakoaren epeen barnean sartzea gomendatzen dugu.

VI.10. EKONOMI-ONDARE EMAITZA-KONTUARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK.

Udalak aurkeztutako 1995eko ekitaldiko Ekonomi-ondare emaitza-kontuak, ondare kontabilitatek ateratakoa, 36,5 milioi pezetako galerak ditu.

Kontabilitatearen azterketatik ekonomia eta ondare emaitza zehazterakoan eragina duten baldintzak azaltzen dira, nagusiak ondoko hauek direlarik:

Ez dira jasotzen diren ekitaldiko dirusarrerak bezala jarri jasotako kapital subentzioak, 129,8 milioi pezetakoak, 1995eko abenduaren 31ko egoera balantzean ekitaldi batzuetan banatzeko dirusarrerak bezala agertzen direnak.

Ez dira hornitu balizko kaudimengabeziak estaltzeko kontabilitate zuzkidurak 22,3 milioi pezetatan balioetsitako zenbatekoan.

Ez dira amortizagarriak diren ondasun higiezi-
nen amortizazioak hornitu eta ez da erregistratu, kontabilitate balioak eta salmentaren zenbatekoa desberdinak direnean, ibilgetuaren ondasunak besterenganatetik aterako litzatekeen etekina edo galera.

Sortzapen hatsapenaren ezarpen desegokia dela kausa, ez dira erregistratu 1995eko ekitaldian diren 12,1 bat milioi pezetako gastuak.

Udalak egiten dituen eragiketen kontabilitate erregistroari dagokionean Kontabilitate Publikorako Plan Orokor berrian ezarritako kontabilitate politikak gauzatzea gomendatzen dugu.

VI.11 HERRILAN, HORNIDURA ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA.

Udalak herrilan, hornidura eta zerbitzuen kontratazioan jarraitutako praktikak aztertzean ikusi dugu, orokorrean, zenbateko txikietarako, esleipen zuzenaren bidez kontratatzen direla, publikizitate zabalaz eta eskaintzak eskatuz, eta zenbateko garrantzitsuko herrilanak lehiaketaren bidez esleitzen direla.

Corellako Udalak ez du Erosketa Batzorderik, nahiz eta, populazioa 5.000 biztanletik gorakoa denez, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak hala xedatzen duen.

Ondoren Udalaren bost kontratazio espedienteren gainean, 1995ko ekitaldiari dagozkionak,

egindako fiskalizazioaren emaitzak aurkezten dira. Hauetatik hiru herrilanei buruzkoak eta bi ondasunen eta zerbitzuen hornidurari buruzkoak.

VI.11.1. 1993-1995 Hiru urteko planeko herrilanak, Laurel kalea (eta hornidura eta saneamendu sareen berritzea).

Arrazoi praktikoak zirela-eta, herrilan hauek egiteko hiru lehiaketa paralelo eta aldi berekoak egin ziren auzo historikoko hainbat kaletako urbanizazioa (hiru urteko plana), Laurel kaleko bigarren zatiaren urbanizazioa eta kale hauetako sareen berritze-lanak kontratatzeko; azken hauek, VI.4.5. atalean (Inbertsio errealeak) eta VI.4.6. atalean (Kapital transferentziak) adierazten denez, Udalak kudetzen eta finantziatzen baditu ere Moncayo Ur Mankomunitatearen esku daudenak.

1994ko azaroaren 30ean hiru herrilan-lehiaketen administrazio baldintza partikularren orriak onesten dira. 1994ko abenduan iragarkiak argitaratzen dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean nahiz herrialdeko bi egunkaritan.

Argitaratutako iragarkietan adierazten da alde historikoko kaleen urbanizazioa eta sareen berritzea egiteko epea 12 hilabetekoa dela eta Laurel kaleko bigarren zatiaren urbanizaziorako 9 hilabetekoa. Administrazio baldintzen orrietan, balizko esleipendunek herrilana bukatzeko epeak baieztatzean, teknikoek hala eskatuta egiten dena, eta esleipendunarekin egindako kontratuaren alde zaharreko kaleen eta Laurel kalearen urbanizazioa eta sareak 1995eko abenduaren 20a baino lehen bukatu behar direla ezartzen da.

Lanak kontratatzeko prozedura lehiaketa da. Administrazio baldintzen orrietan ez dira esleipena egiteko irizpideak zehazten, baina, Udalak dioenez, Mahaiak proposamenak ireki baino lehen ezarri zituen.

Lehiatu diren zazpi enpresetatik bostek bakarrik eskaini dituzte hiru herrilanak edota hiru lehiaketetan onartuak izan dira. Esleipenari buruzko erabakia hartzeko proiektuaren ardura duten teknikariei txosten tekniko bat eskatu zitzaie, 1995eko urtarrilaren 18an datatua, lehiaketetara aurkeztu diren enpresa bakoitzarentzako puntua-zio bat ezartzen duena. Kontratazio-mahaiak bi enpresari eskatu zien lanak eskatutako epeetan egingo zituztela baieztatzea, teknikariek egindako zerrendaren lehenengo tokian zegoenari eta ekonomikoenari, zerrendaren bostgarren tokian zegoena. Bi enpresek baieztatu zuten egin zitekeela. Baieztapen honen ondoren kontratazio-mahaiak esleipena eskaintza ekonomikoenari proposatzea erabaki zuen, nahiz eta txosten teknikoak ohartarazten zuen enpresa guztiak kaudimendunak izan

arren, eskaintzarik baxuenari emateak lanak gartzean arazoak sor litzakeela margen txikia izateagatik.

Ezin izan ditugu aztertu beste enpresa eskaintzaileek aurkeztutako proposamenak itzuli egin direlako.

Udalak ez du Kontuen Ganbarara kontratu hauen kopiarik igorri, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 232. eta Kontratuari buruzko Foru Legearen 133.2. artikuluetan ezarrita dagoen bezala.

Aztertutako espedienteetan kreditua dagoen ala ez frogatzeko egiaztagiririk ez dagoela atzeman da.

A) 1993-1995 Hiru urteko plana.

Guztira 194 milioi pezetako zenbatekoan, BEZ barne, esleitu zen herrilan hau, kopuru honen barnean aurreikusi gabeko gastuetarako 6 milioi pezetako kopuru finkoa izanik, ezarritako egutegia betetzeak baldintzatua beti ere.

Behin-behineko kitapenaren zenbatekoa 216 milioi pezetakoa da, administrazio baldintzetan aurreikusitakoak baino handiagoak diren lan-unitateetan aurreikusitako ehuneko 10 gaintuz. Honez gain, herrilanean konponketa gehigarriak eragin dituzte, lan zuzendariak, 1996ko azaroaren 27ko txostenean, 8 milioi pezetatan zenbatutakoak, Nafarroako Gobernuak dagokion partean diruz lagundu dituenak.

Herrilan honen behin-behineko harrera-data 1996ko uztailaren 3a da. Lan zuzendariak, 1996ko azaroaren 27ko txostenean, enpresa kontratista lanak betetzeko atzerapenarengatik zigortzeko arrazoirik ez dagoela adierazten du, 1995eko martxoaren 28a jotzen baitu lanen hasierako eguntzat, hau da, obraren zuinketa egiazta-

tzeko aktaren eguna, eta egiteko epea 12 hilbate, justifikaturiko arrazoiengatik 3 hilabeteko atzerapena ontzat emanez.

B) Laurel kalea.

Obra hau guztira 31 milioi pezetako zenbatekoan esleitu zen, BEZ barne. Behin-behineko kitapenaren zenbatekoak 44,5 milioi pezeta egiten du. administrazio baldintzetan aurreikusitakoak baino handiagoak diren obra-unitateetarako aurreikusitako ehuneko 10 gaintuz.

Aurrekontuan sartutako zenbatekoaren gaineko desbideratze garrantzitsu honen kausak obraren handitzea eta kanalizazioen nahiz altako lineen agerpena izan dira, zuzendari teknikoaren txosten baten arabera. Aldaketa hauek legezko araudia bete gabe egin dira, honek dagozkien txosten teknikoak, juridikoak, Kontratazio Batzordearena eta Kontuhartzaitzarena (kreditu nahikoa dagoen ala ez) eskatzen dituelarik.

Obrak 1995eko otsailaren 27an hasi ziren, eta kontratuaren arabera 1995eko apirilaren 30ean bukatu ziren. Behin-behineko harreraren data 1996ko uztailaren 23a da. 1995eko abuztuaren 17ko data duen txosten batean obrako zuzendariak errodaduraren azken geruza falta dela eta momentuz ez egitea komenigarri ikusten dutela diote.

C) Hornidura eta saneamendu sareen eraberritzea.

Obra hau, titularra Moncayoko Ur Mankomunitatea izan arren Corellako Udalak kudeatu duena, 81,6 milioi pezetatan kitatu da, esleipen prezioa baino 9,5 milioi gehiagotan, gorantza ehuneko 13ko desbideratzea egiten duena.

Azkenik, jarraian aldi berean egindako hiru lanen laburpen koadro bat aurkezten dugu:

	Esleipenaren zenbatekoa	Kitatutako zenbatekoa	Gehitzea	Aldaketaren %
Hiru urteko plana	194.345.202	216.330.198	21.984.996	11,3
Laurel kalea	31.320.050	44.530.408	13.210.358	42,2
Udalak guztira	225.665.252	260.860.606	35.195.354	15,6
MAM sareak	72.163.013	81.630.916	9.467.903	13,1
Obrak guztira	297.828.265	342.491.522	44.663.257	15

VI.11.2. Zezenplazako torilen erreforma.

Zezenplazan egindako erreforma bat da. Zezenplaza jabe komunitate batena da eta Udalak bertan parte hartzen du gutxiengoan. 1995eko urriaren 30eko Gobernu Batzordeak esleipen

zuzenaz kontratatu zion eskaintza ekonomikoeneri. 8 milioi pezetatan esleitu zen.

Ez zen administrazio baldintzen orririk egin eta esleipena ez zen idatzizko kontratu batean gauzatu.

Jakinarazi digutenez, obra 1996ko abenduan bukatu da eta hiru obra egiaztatze aurkeztu dira 9,7 milioi pezetako zenbatekoaz.

VI.11.3. Hornidura eta zerbitzuen kontratuak.

Jarraian ohiko horniduren kontratazioaren azterketan egindako iruzkinak adierazten dira:

- Hiri altzariak eta elektrizitatea.

Zerbitzu hauek esleipen zuzenaren bidez kontratatzen dira.

Hiri altzarien erosketarako ez dago dagokion administrazio espediente eta ez zen eskaintzarik eskatu balizko beste eskaintzaile batzuei, bakarrik kontabilitate dokumentazioa zegoelarik.

Elektrizitatearen zerbitzuari dagokionez, lehiantezuden 4 eskaintza aztertu ondoren zerbitzua esleitzen duen Udal Gobernu Batzordearen erabaki bat baino ez dago.

- Orkestren kontratazioa 3,3 milioi pezetako zenbatekoaz.

Festetarako orkestrak esleipen zuzenaren bidez kontratatu dira 1995ean.

Ez dago kontratazioaren dokumentazio euskarria duen administrazio espedienterik. Gastu honen kontabilitate dokumentazioa dago, egokia dena.

Azken esleipendunari bakarrik eskatzen zaio eskaintza, honek aukerako programazio proposamen batzuk aurkezten dituelarik.

Kontratuetak batean baimena ematen zaio esleipendunari Udala ordezkatzuz eta hitzartutako prezioan hainbat orkestra kontrata ditzan. Kontratu hau da egindako ordainketen dokumentu euskarritzat balio duena, orkestren fakturak ez baitira jasotzen. Ordainketak 475.000 pezetako sei txekeren eta 469.000 pezetako txeke baten bidez egiten dira, guztiak eramaile-txekeak.

Gomendioak

Orokorrak:

Corellako Udalak Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 225. artikulua ezartzen duen Erosketa Batzordea eratu behar du, beren zenbatekoa guztira ohiko dirusarreraren ehuneko 5 baino gehiagokoa den erosketei buruz informa dezan.

Kontratuari buruzko Foru Legea eta kontratazio publikoa arautzen duen gainerako araudia modu zorrotzagoan ezartzea.

Partikularrak:

Lehiaketetako baldintza partikularren orrietan eskaintzen balorazioan erabiliko diren irizpideak sartzeari.

Kontratazioa egin aurreko pausotzat kreditua dagoela adierazten duen ziurtagiria luzatzea.

Herrilan garrantzitsuen jarraipen ekonomikoa eta aurrekontuarena egitea bertan biltzen diren baldintza guztiak modu egokian ezagutzeko eta dokumentatzeko. Honela, proiektuetan aldaketak edota obra-unitateen aldaketa bat sartzeari erabakitzen denean obra kontratuaren aldaketa Kontratuari buruzko Foru Legearen 56. artikuluan ezarritakoaren arabera egin ahal izanzen da. Dagokion udal organoak obren atzerapenak ezagutu eta hauei buruz erabaki behar du kontratuari aurreikusitako zehapenak ezarri behar diren aztertzeko.

Zuzeneko esleipenentarako legezko araudiak galdatzen dituen hiru eskaintza gutxienez eskatzea.

Ordainketak eramaile-txekeen bidez egiteko praktika kentzea.

Kontratutako orkestrei gastua egiaztatzen duten fakturak eskatzea.

VI.12. HIRIGINTZA ETA ONDAREA.

Corellako Udalak dagokien azterketa ekonomiko-finantzieroa ez duten udal arau ordezkatzailerak ditu, 1979an onetsitakoak, azken aldaketa 1987an egin zelarik.

Esan digutenez, Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria, Lurraren Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko 1992ko ekainaren 26ko Legearen testu birbildeari eta Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legeari egokitzuz, udalak berriki onetsi duena, jendaurrean jarri da Nafarroako Gobernuaren Departamentu batzuen txosten egokien zai, behin-behineko onespenari ekiteko.

Udalak ez du eratu lurzorua udal ondarea.

Lurzorua udal ondarea eratu beharra gogorarazten da. Hiri planeamenduak hiri edo programaturiko hirigintzarako lurak bezala sailkatuta gertatzen diren ondare-ogasunek osatuko dute hau eta, edozein modutan, uzteen ondorioz eskuratutakoak, lurretan nahiz dirutan, edozein motatako hirigintza desjabetzapenen bidez lortutakoak, eta eroslehtasun eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatuz lortutakoak, Lurralde Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearekin bat etorri.

Iruñean, 1997ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

CORELLAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

José Matías Lázaro Corellako Udaleko Alkate-Udalburu jaunak, idazki honen bidez Nafarroako Kontuen Ganbararen aurrean agertzen da eta 1995eko ekitaldi ekonomikoari dagokion Corellako Udalar buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena dela-eta, honako alegazio hauek egiten ditu:

Lehenengoa: Sortzapenaren irizpidea.

Behin-behineko fiskalizazio txostenaren dokumentu guztian zehar eragiketen mozketan akatsak izan direla aipatzen da; horrela agertzen da fiskalizazio lanaren beraren garapenerako mugak aipatzean, aurrekontuaren likidapenari buruzko atalean aurreko ekitaldiari zegozkion gastuak erregistratu direla eta ekitaldiari berari dagozkion gastuak ez direla adierazi aipatzen denean (inbertsio errealak, kapital transferentziak, maileguen korrituak, gizarte aseguruak, eta ohiko ondasunak eta zerbitzuak erostea), eta, ondorioz, jarraitu beharreko gomendioetan.

Honi dagokionez, esan daiteke kontabilitate publikoan kontabilizazio irizpidea ez dela kontabilitate pribatuan dagoen berbera, eta honela eragiketak gastua edo dirusarrera egiaztatzen duen ziurtagiriaren harreraren datan kontabilizatu dira. Irizpide hau ezartzean, aurrekontuaren betetzea ez da indargabetua geratzen, Ganbarak jarraitutako irizpidearen arabera aurreko ekitaldiari legozioketen eragiketak konpenstatzen baitira eta hurrengo ekitaldiari pasatzen dira Ganbararen arabera uneko ekitaldiari legozioketen eragiketak.

Era berean gehi daiteke sortzapenaren irizpidearen ezarpena ez dela bideragarria entitate publikoetan, hauen egitura dela-eta eragiketaren zenbatekoa "0" deitutako fasean (betebeharraren onarpena) ezagutzen baita, fakturaren aurkezpenarekin batera gertatzen dena. Adibiderik adierazgarriena obren egiaztatzeak izanen lirateke, kontratistak egindako lanei dagozkien kopuruak agertzen dira hauetan eta Administrazioak ez ditu ezagutzen egiaztatzea aurkezpena egin arte, hau batzuetan lanen burutzearekiko bi hilabeterainoko edo gehiagoko desfasea duelarik. Honez gain gerta liteke bi aurrekontu-ekitalditan egindako lanak hartuko lituzkeen egiaztatze bat banatu behar izatea, honek ekarriko lituzkeen arazoekin, eta are gehiago korapila daiteke Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak itzultzeko duen sistema-rekin, egiaztatzeak obra baten portzentaia baten arabera izatea eskatzen duena.

Bigarrena: Legeak betetzea. Legez kotasunari buruzko iruzkinak, arau-hausteak espreski aipatuz, Udalaren kudeaketan erabateko ilegaltasuna ikusten dela ematen du, eta formari dagozkion gauzetan akatsak besterik ez daudenez, egokiago litzateke arau-hausteez mintzatu beharrean akatsez egitea.

Hirugarrena: Kontratazio prozedurak. IV.1.5 atalean, aurreko txostenaren gomendioen jarraipenaz mintzatzean, obrak eta zerbitzuak kontratazko enkantea eta lehiaketa prozeduren ezarpen handiagoarekin zerikusia duten gomendioak ezarri gabe geratu direla adierazten da. Honi dagokionez, esan behar da Udalak prozedura hauek erabili dituela legez hala eskatu zaion guztietan; beraz, eta administrazio kudeaketa arintzeagatik, uste dugu ez dela izaera orokorraz gomendagarria Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea beharrezkoa duten prozedurak erabiltzea, legez eskatzen ez denean, publizitatearen eta lehiaren xedeak legezko xedapenak hautsi gabe bete baitaitezke zuzeneko kontratazioaren bidez edo konkurrentzia handiz negoziatutako prozedura batez, entitate honetan egiten ari denez.

Laugarrena: Organismo autonomoa. Kontabilitate publikoaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeari buruz azaldutako adierazpen batzuk egia badira ere, egia da ere kontabilitate pribatua eraman zela Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak hala adierazita, kontabilitate publikoa ezartzeko langileentzako heziketa ikastaroak ezin izan baitzituen 1996ra arte antolatu Nafarroako Gobernuak.

Horrela, organismo autonomoaren kitapena ere ezin izan zen Udalaren aurrekontuaren kitapenarekin sartu, izaera desberdinetako kontabilitateetatik abiatzean ezinezkoa baitzen berdintzea eta elkarreratzea. Horregatik ez du zentzurik 1995eko aurrekontu ekitaldiari buruzko ondorioa, nahiz eta hurrengo urteetan onespena modu bateratuan egin dela adieraz daitekeen.

Bosgarrena: Presio fiskala. Corellako Udalaren egoera ekonomikoari buruzko azterketa egitean, VI.2 atalean entitatearen presio fiskala neurri handi batean 1994 urtearen gainean kalkulaturako Nafarroako babezbestekoa baino txikiagoa dela aipatzen da, baina gertatzen da Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuaren datuen arabera Corellako Udala Nafarroako batezbestekoaren gainetik dagoela presio fiskalari dagokionez. Eraitzen arteko diferentzia hau aipatutako presio fiskalaren kalkulurako erabilitako irizpideei egotzi ahal zaie. Baina, edonola ere, garbi utzi behar da udalerriko herritarrek azken ekital-

dietan tributuen alorrean egin duten ahalegina, tasen gehitzean, batez ere hiri lur kontribuzioan.

Seigarrena: Inbentarioa. Behin-behineko txostenaren arabera, aseguratutako zenbatekoek ez dituzte ibilgetuaren kontabilitate balioak estaltzen. Aipa daiteke aseguruen kontratazioa egitean aseguru etxeak kapitalak eguneratu zituela aseguruen teknikaren irizpideen arabera, kontabilitate balioekin bat etorri behar ez dutenak. Horregatik, ibilgetuen balio guztia estalita dago ezbeharren bat izanez gero aseguru-etxeak ordainduko lukeen kalteordainaren arabera.

Zazpigarrena: Kontrol prozedurak. Kudeaketa eta kobraketarako emandako ordainagiriaren jarraipenerako esku-kontrola dago.

Zortzigarrena: Nominetako atxikipenak. Behin-behineko txostenean atxikipen-portzentaia

kalkulatzeko aparteko orduak ez direla kontutan hartzen aipatzen da, baina zehatzagoa da aurtreko ekitaldian egindakoak hartzen direla kontutan erreferentzia bakartzat, ezin baitira etorkizuneko beharrak aurreikusi, hasiera batean aurreko urtekoak izanen direla suposatzen dugularik.

Horrenbestez, alegazio idazki hau aurkeztuzat ager dadila, onartuak izan daitezela eta aztertu ondoren kontutan hartuak izan daitezela eta Corellako Udalarari buruzko behin betiko fiskalizazio txostenean, 1995eko ekitaldi ekonomikoari dagozkiona, ager daitezela eskatzen dut.

Corellan, 1997ko apirilaren 9a

Alkate – Udalburua: José Matías Jiménez Lázaro

Jaime Iribarren Iriarte jaunak Foru Parlamentari izateari uztea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, honako Erabaki hau hartu zuen:

“Jaime Iribarren Iriarte jaunak Foru Parlamentari kargua uzten duela gaztigitzeko aurkeztu duen idazkia ikusirik, eta Erregelamenduko 28.5 artikulua ezartzen duena ikusirik, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak karguari utzi diola jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko uztailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Xabier Vélez Medrano jaunak Foru Parlamentari kargua hartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko uztailaren 4an eginiko bilkuran, honako Erabaki hau hartu zuen:

“«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak idazkia aurkeztu du Jaime Iribarren Iriarte jaunaren ordean Xabier Vélez Medrano jauna jarri dela jakinarazteko. Hori ikusirik,

ERABAKI DA:

Lehena.- Xabier Vélez Medrano jaunak Foru Parlamentari kargua hartu duela jakinaren gainean dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko uztailaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Xabier Vélez Medrano jauna «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko uztailaren 21ean eginiko bilkuran, Xabier Vélez Medrano jauna «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldean sartu dela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen kideak

Jaime Iribarren Iriarte jaunak bere karguari uko egin dionez eta Xabier Vélez Medrano jauna «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldean sartu denez, hona hemen Parlamentari Talde hori osatzen duten Foru Parlamentariak:

Aoiz Monreal, Florencio

Araiz Flamarique, Adolfo
Etxandi Juanikotena, Xotero
Vélez Medrano, Xabier
Zabaleta Zabaleta, Patxi

Iruñea, 1997ko uztailaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“Elkarbizitza Baketsuaren aldeko Akordioa”ren berrespena

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko uztailaren 21ean egindako ohiz kanpoko osoko bilkuran berretsi zuen “Elkarbizitza Baketsuaren aldeko Akordioa”, “Unión del Pueblo Navarro”, “Partido Socialista de Navarra”, “Nafarroako Demokraten Elkargunea” “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” eta “Eusko Alkartasuna” alderdi politikoek uztailaren 14an sinatutakoa. Ondotik ematen da haren testua.

Iruñean, 1997ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“Elkarbizitza Baketsuaren aldeko Akordioa”ren berrespena

Lehenbizi, bat egin nahi genuke ETA talde terroristak batera errukirik gabe erahil duen Miguel Angel Blanco Garridoren familiaren saminarekin. ETAk berriz ere erakutsi digu bere benetako aurpegia, sadismo eta ankerkeriarena, egun gutxi batzuk ere ez zirela José Antonio Ortega Lararen ezin adierazizko irudiek sortutako ikara sentitu genuela; haren aurpegian islatzen ziren tortura basatiaren eta traturik ankerrenaren arrasto argiak.

1997ko urtarrilaren 21eko Elkarbizitza Baketsuaren aldeko Akordioaren 5. puntuan adierazi zen bezala, alderdi sinatzaileek HBren eta inguruko beste erakunde batzuen erantzukizun politiko larria azpimarratzen zuten, izan ere, konplizeak direlako paperen banaketa egina duen ETAREN terrorismo odoltsuan; batzuk akuilatzaileak dira eta beste batzuk ekintzaileak; batzuek hitzak jarritzen dituzte eta beste batzuek tiroa garondoan.

Haiek kriminalizatu nahi dituztela eta, HBk egin duen apelazio koldarra deitoratzen dugu, hain zuzen ere, beraiek direlako beren burua kriminalizatzen dutenak Miguel Angelen aurkako atentatu krudela gaitzetsi ez dutenean eta ETARI bera askatzeko eskatu ez ziotenean.

Beste behin esan behar diogu ETARI indarkeria eta terrorismoaren bidea utz dezan. Armen, gorrotoaren eta sufrimenduaren hizkerak arrasto luze eta odoltsua utzia du jada herri honetan. Erabat ezinbestekoa eta presa larrikoa da ETARI eta HBRI adieraztea ez dezala gizarte hau kondenatu etengabeko gorrotoan eta sufrimenduan egotera, ez eta haien presoei beraiei eta senitartekoei etsipenean bizitzera ere.

Akordioa sinatzen dugun alderdiok, beste neurri batzuen artean, dei egiten diogu HBri ETak Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets dezan, eta iragartzen dugu hala egiten ez badu, aldarrikapen hau sinatu dugun alderdi politikook ez dugula sinatuko HBrekin Foru Komunitatearen esparruan inongo akordio instituzionalik eta lehendik sinatutakoak deuseztuko ditugula.

Gizartearen indar sozial eta ekonomiko guztiei dei egiten diegu ez daitezen lankidetzan aritu KAS multzoko eta, finean, ENAMeko taldeekin eta ez diezaieten laguntzarik eman.

ETak erakunde terroristak Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana arbuatu eta gaitzesteko

egiten diren deialdi guztiak lagundu nahi ditugu, eta gonbitea egiten diegu nafar herritar guztiei haietan parte har dezaten.

Gizartean oro har dauden samina eta amorrua, erabat justifikatuak gainera, ulertzen ditugu, baina sosegurako deia egin nahi genuke, erantzun baketsua eman dadin, demokratek behar dutena, gutxiengo bortitz eta faxisten probokazioen aurrean. Akordioa sinatzen dugun alderdiok herritarrak zoriondu behar ditugu eta haiei eskerrak eman beren erantzun jendetsu eta baketsuagatik, horixe baita elkarrizketa eta adiskidetzearen bidetik erai-kiko den bake eta askatasuneko etorkizunaren bermerik onena.

Aldarrikapena, “Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeari dei egiteko ETak Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets dezan

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko uztailaren 21ean egindako ohiz kanpoko osoko bilkuran Aldarrikapen bat onetsi zuen, “Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeari dei egiten dioena ETak Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets zezan. Ondotik ematen da haren testua.

Iruñean, 1997ko uztailaren 21ean

Lehendakaria, M^a Dolores Eguren Apesteguía

Aldarrikapena, “Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeari dei egiteko ETak Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets dezan

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari dei egitea ETak Miguel Angel Blanco Garrido erahil izana gaitzets dezan; iragartzen dugu halako gaitzespenik egiten ez bada, 1997ko uztailaren 14an sinatutako Elkarbizitza Baketsuaren aldeko Akordioa sinatzen dugun Parlamentari Taldeok, Biltzarreko Erregelamenduak xedatzen duena errespetatuz, ez garela talde harekin batera arituko, ez eta harekin inongo parlamentuko ekinbiderik egiten ere.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--